El objeto de la presente ley es el establecimiento de las bases y estructuras fundamentales necesarias para la planificación, creación, organización, funcionamiento y coordinación del Sistema Bibliotecario de Euskadi, y también garantizar los servicios que faciliten el funcionamiento de las bibliotecas y el derecho de

VII. tituluari Liburutegien Aholku Batzordea sortzen da, liburutegi alorreko kide anitzeko kontsulta-organo gisa, eta horren eginkizunak eta osaera geroago erregelamendu bidez arautzeko uzten dira.

VIII. tituluari zehatzeko araubidea zehazten da. Tresna horren bitartez, hainbat helburu lortu nahi dira: herritarrei kalitatezko liburutegi-zerbitzu publikoa jasotzeko eskubidea bermatzea, Euskadiko Liburutegi Sistemak eta irakurketa-sare publikoak funtziona dezaten ahaleginak egitea eta Euskadiko bibliografia-ondarearen gordailuaren alorrean xedatutakoa betetzen dela ziurtatzea. Araubide horretan toki-erakundearen autonomiaren oinarriko berme instituzionala ziurtatzen da, Konstituzioan eta Estatutuan jasota baitago; hala, ez da aldatzen, liburutegi batzuei eta besteei dagokienez, euskal administrazioek duten eskumen-araubidea, baina aukera ematen da zeinek bere esparruan modu bateratu eta eraginkorrean esku hartzeko markoa finkatzeko.

Legearen lau xedapen gehigarrietan, sei hilabete epea ezartzen da Euskadiko Liburutegien Aholku Batzordea eratzeke, eta urtebetekoa, hori eratzeko denetik, irakurketa publikoaren mapa onartzeko. Lehenengo xedapen iragankorrean, Euskadiko udalerrietan sor daitezkeen arazoak ikusita, bost urteko epea ezartzen da udal-liburutegiak legean jarritako baldintzetara egokitzeko, eta, gainera, babestu egiten dira toki-erakundeek baldintza horiek betetzeko epe horretan burutu nahi dituzten ekimenak, betiere ordenamendu juridikoaren arabera badira. Bigarren xedapen iragankorrean, Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailari hainbat eginkizun esleitzen zaizkio Euskadiko Liburutegia abian jarri arte.

Legearen testua osatzeko, xedapen indargabetzaile bat eta hiru azken xedapen daude, eta horrelako xedapenetan ohikoa den edukia dute. Azken xedapenetako lehenengoaren bidez, Euskal Kultura Ondareari buruzko Legearen 66. artikulua aldatzen da, euskal bibliografia-ondarearen definizioa eguneratzeko; xedapen indargabetzailearen bidez, berariaz indargabetzen dira lege horretako 67 eta 68. artikulua eta IV. tituluko II. kapituluak, eta, gainera, lege honen aurka doazen arauak ere indarrak gabe uzten dira, ohiko formula erabiliz.

## I. TITULUA XEDAPEN OROKORRAK

### 1. artikulua. Legearen xedea

Lege honen xedea da funtsezko oinarri eta egiturak ezartzea Euskadiko Liburutegi Sistemaren planifikazio, sorrera, antolaketa, funtzionamendu eta koordinazioarako; liburutegien funtzionamendua erraztuko duten zerbitzuak bermatzea, eta herritarrek irakurtzeko eta, informazioaren eta teknologia berrien gizarte



los ciudadanos a la lectura y al acceso a medios y contenidos informativos en el marco actual de la sociedad de la información y las nuevas tecnologías. Asimismo, tiene por objeto regular el depósito bibliográfico de Euskadi.

## Artículo 2. Ámbito de aplicación

La presente ley será de aplicación a todas las bibliotecas de titularidad pública de competencia de la Comunidad Autónoma, así como a aquellas otras bibliotecas de titularidad privada, foral o estatal incorporadas voluntariamente al Sistema Bibliotecario de Euskadi o a la red de lectura pública de Euskadi, sin perjuicio de su aplicación general en materia del depósito bibliográfico de Euskadi y fondos de interés nacional.

## Artículo 3. Concepto de biblioteca

1. Se entiende por biblioteca, a efectos de esta ley, cualquier conjunto organizado de libros, publicaciones periódicas o en serie, grabados, mapas, grabaciones sonoras, documentación gráfica, fotográfica, audiovisual, multimedia y electrónica y otros materiales o fuentes de información, manuscritos, impresos o reproducidos en cualquier tipo de soporte, que tenga como finalidad reunir y conservar estos documentos y facilitar su uso a través de los medios técnicos y personales adecuados para la información, la investigación, la educación o el ocio.
2. Sea cual sea su carácter en cuanto al volumen, contenido y vinculación, las bibliotecas, a efectos de esta ley, podrán ser:
  1. En función de su titularidad:
    - a) Biblioteca pública: titularidad de las administraciones y organismos públicos.
    - b) Biblioteca privada: titularidad de personas o entidades privadas.
  2. En función de su uso:
    - a) De uso público general: abiertas al público en general y que, por lo tanto, prestan a toda la comunidad un servicio de lectura pública, sin ningún tipo de restricción de uso en relación con sus fondos y servicios, salvo los impuestos por la conservación y preservación de sus fondos patrimoniales.
    - b) De uso restringido: por hallarse al servicio de una institución o grupo determinado de usuarios; tendrán esta consideración las bibliotecas

honetan, informazio-bide eta -edukietarako irispidea izateko duten eskubidea ziurtatzea. Era berean, lege honen xede da Euskadiko bibliografia-gordailua arautzea ere.

## 2. artikulua. Aplikazio-eremua

Lege hau Euskal Autonomia Erkidegoaren titulartasun publikoko liburutegi guztiei aplikatuko zaie; baita Estatuaren edo foru-aldundien liburutegiei eta liburutegi pribatuei ere, baldin eta, beren borondatez, Euskadiko Liburutegi Sistemari edo Euskadiko irakurketa publikoko sarean sartzen badira. Horrezaz gainera, Euskadiko bibliografia-gordailuaren eta nazio-intereseko funtsen alorrean ere aplikatuko da, oro har.

## 3. artikulua. Liburutegiaren kontzeptua

1. Lege honen ondorioetarako, hauxe joko da liburutegizat: eskuz idatzitako, inprimatutako edo edozein euskarritan erreproduzitutako liburuen, aldizkako edo serieko argitalpenen, grabatuen, mapen, soinu-grabazioen, dokumentazio grafikoaren, argazkien, ikus-entzunezkoen, multimedia-materialen, dokumentazio elektronikoen eta bestelako material edo informazio-iturrien edozein bilduma antolatu, baldin eta helburua horiek bildu eta kontserbatzea eta, bitarteko tekniko eta pertsonal egokiak erabiliz, horien erabilera erraztea bada, dela informaziorako, dela ikerketa, heziketa edo aisiarako.
2. Bolumen, eduki eta lotura aldetik zeinahi izaera dutela ere, liburutegiak mota hauetakoak izan daitezke lege honen ondorioetarako:
  1. Titulartasunaren arabera:
    - a) Liburutegi publikoa: titularrak herri-administrazio eta erakunde publikoak dira.
    - b) Liburutegi pribatua: titularrak pertsona edo entitate pribatuak dira.
  2. Erabileraren arabera:
    - a) Erabilera publiko orokorrekoak: guztientzat irekita daude eta, beraz, komunitate osoari eskaintzen diote irakurketa publikoko zerbitzua, inolako murrizketarik gabe funts eta zerbitzuen erabilerari dagokionez, salbu eta liburutegien ondarea osatzen duten funtsak kontserbatzeko eta zaintzeko beharrezko direnak.
    - b) Erabilera mugatukoak: erakunde baten edo erabiltzaile talde jakin baten zerbitzura daudelako; hala-koak izango dira liburutegi espe-

especializadas, salvo que sus titulares voluntariamente no limiten el acceso a sus fondos.

zializatuak, salbu eta haien titular direnek beren borondatez ez badute beren funtsetarako irispidea mugatzen.

#### Artículo 4. Principio de colaboración

La Administración general de la Comunidad Autónoma de Euskadi colaborará con las administraciones locales, así como con las instituciones bibliotecarias de los territorios históricos, del Estado, de otras comunidades autónomas y del ámbito lingüístico del euskera en orden al fomento y mejora de los servicios bibliotecarios.

#### Artículo 4 bis. Convergencia de archivos, bibliotecas y museos

Los servicios bibliotecarios se prestarán mediante una política de información encaminada a la convergencia de las instituciones de los sectores de archivos, bibliotecas y museos.

### TÍTULO II EL SISTEMA BIBLIOTECARIO DE EUSKADI

#### Artículo 5. Definición

1. El Sistema Bibliotecario de Euskadi es el conjunto organizado de órganos, bibliotecas y servicios bibliotecarios de la Comunidad Autónoma de Euskadi, que tiene como fin garantizar el mejor aprovechamiento de todos sus recursos bibliotecarios, mediante la coordinación y cooperación entre sus diversos elementos.
2. Al departamento del Gobierno Vasco competente en materia de cultura le corresponderá desarrollar la planificación de los servicios bibliotecarios ofrecidos por el Sistema Bibliotecario de Euskadi.

#### Artículo 6. Composición

El Sistema Bibliotecario de Euskadi está integrado por:

- a) La red de lectura pública.
- b) La Biblioteca de Euskadi.
- c) Las bibliotecas universitarias y de centros docentes públicos.
- d) Las bibliotecas dependientes de la Administración de la Comunidad Autónoma de Euskadi no integradas en la red de lectura pública.
- e) Las bibliotecas especializadas y el resto de las bibliotecas que, no formando parte de la red de lectura pública, se integren en el Sistema Bibliotecario de Euskadi mediante convenio entre el titular de la biblioteca y el departamento de la Administración general de la Comunidad Autónoma de Euskadi.

#### 4. artikulua. Lankidetzaren printzipioa

Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio orokorrak lankidetzan jardungo du toki-administrazioekin eta lurralde historikoetako, Estatuko, beste autonomia-erkidegoetako eta euskararen hizkuntza-esparruko liburutegi-erakundeekin, liburutegi-zerbitzuak sustatu eta hobetzeko.

#### 4 bis artikulua. Artxibo, liburutegi eta museoaren konbergentzia

Liburutegi-zerbitzuak ematerakoan, artxibo, liburutegi eta museoaren sektoreetako erakundearen konbergentziara zuzenduriko informazio-politika egingo da.

### II. TITULUA EUSKADIKO LIBURUTEGI SISTEMA

#### 5. artikulua. Definizioa

1. Euskadiko Liburutegi Sistema Euskal Autonomia Erkidegoko organo, liburutegi eta liburutegi-zerbitzuen multzo antolatua da eta liburutegi-baliabide guztiak hobeto aprobetxatzea du helburu, elementu guztien koordinazioan eta lankidetzan oinarrituta.
2. Eusko Jaurlaritzaren kulturaren alorreko eskumenak dituen sailari dagokio Euskadiko Liburutegi Sistemak eskaintzen dituen liburutegi-zerbitzuen planifikazioa aurrera eramatea.

#### 6. artikulua. Osaera

Hauek dira Euskadiko Liburutegi Sistema osatuko dutenak:

- a) Irakurketa publikoko sarea.
- b) Euskadiko Liburutegia.
- c) Unibertsitate eta ikastetxe publikoetako liburutegiak.
- d) Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren menpekoak izan arren, irakurketa publikoko sarea sartuta ez dauden liburutegiak.
- e) Irakurketa publikoko sareko kide izan gabe, Euskadiko Liburutegi Sistemaren sartzen diren liburutegiak eta liburutegi espezializatuak. Sistemaren sartzeko, liburutegiaren titularrak hitzarmen bat sinatu beharko du Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio orokorrean kulturaren alorreko kide izan gabe.

- |  |  |
|--|--|
| <p>noma de Euskadi competente en materia de cultura.</p> <p>f) Los órganos de la Administración general de la Comunidad Autónoma de Euskadi con competencia en materia de bibliotecas.</p> <p>g) El Consejo Asesor de Bibliotecas.</p> | <p>rreko eskumenak dituen sailarekin.</p> <p>f) Liburutegien alorrean eskumenak dituzten Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio orokorreko organoak.</p> <p>g) Liburutegien Aholku Batzordea.</p> |
|--|--|

#### Artículo 7. Deber de información

Las personas públicas o privadas titulares o responsables de bibliotecas del Sistema Bibliotecario de Euskadi deberán proporcionar al departamento del Gobierno Vasco competente en materia de cultura los datos sobre personal, fondos, presupuestos, instalaciones, equipamientos, servicios y uso de éstos, así como aquellos otros que se determinen reglamentariamente, con la finalidad de su evaluación y difusión.

El departamento competente creará las condiciones para que aquellas bibliotecas privadas o públicas que no formen parte del Sistema Bibliotecario de Euskadi den la información necesaria a efectos de completar el conocimiento de la oferta bibliotecaria de Euskadi, así como de todas aquellas que contengan fondos de interés para la cultura vasca.

#### Artículo 8. Acceso a la información bibliográfica

El departamento del Gobierno Vasco competente en materia de cultura garantizará el acceso a la información bibliográfica de las bibliotecas integrantes del Sistema Bibliotecario de Euskadi mediante la creación de un catálogo colectivo. Por su parte, las bibliotecas incluidas en el Sistema Bibliotecario de Euskadi garantizarán la utilización de las dos lenguas oficiales en la Comunidad Autónoma de Euskadi, se ajustarán a las disposiciones reglamentarias que se dicten y adoptarán las medidas técnicas necesarias para hacer posible el intercambio de información. Especialmente, garantizarán que los trabajos técnicos, catálogos y recursos técnicos sean bilingües.

Asimismo, para garantizar el acceso de los ciudadanos a la cultura, las bibliotecas públicas deberán informar a los usuarios sobre sus fondos y facilitar gratuitamente la utilización y consulta, aunque su uso pueda ser limitado.

#### Artículo 9. Efectos de la integración en el Sistema Bibliotecario de Euskadi

El departamento del Gobierno Vasco competente en materia de cultura velará por que la integración en el Sistema Bibliotecario de Euskadi facilite a sus miembros la adopción de políticas comunes, el intercambio de información, la coordinación del préstamo interbibliotecario, la planificación de los procesos de trasvase de contenidos a sistemas digitales u otros soportes, la investigación bibliotecaria y el desarrollo de servicios de acceso a la información y a la comunicación en las bibliotecas.

#### 7. artikulua. Informatzeko eginbeharra

Euskadiko Liburutegi Sistemako liburutegien titular edo arduradun publiko zein pribatuek hainbat gairi buruzko datuak eman beharko dizkiote Eusko Jaurlaritzan kulturaren alorreko eskumenak dituen sailari, hala nola langileei, funtsei, aurrekontuei, instalazioei, ekipamenduei, zerbitzuei eta horien erabilerari buruzkoak, baita erregelamendu bidez eskatutako gainerakoak ere, ebaluatu eta zabaldu ahal izateko.

Eskumena duen sailak baldintza egokiak sortu ditu Euskadiko Liburutegi Sistemako kide ez diren liburutegi pribatu edo publikoek behar den informazioa eman dezaten, Euskadiko liburutegi-eskaintzari eta euskal kulturarentzako interesgarriak diren funtsak dituzten liburutegiei buruzko ezagutza osatzeko.

#### 8. artikulua. Bibliografia-informaziorako irispidea

Eusko Jaurlaritzan kulturaren alorreko eskumenak dituen sailak bibliografia-informaziorako irispidea bermatuko die Euskadiko Liburutegi Sistemako liburutegiei, katalogo kolektibo bat sortuz. Euskadiko Liburutegi Sistemako liburutegiek, beren aldetik, Euskal Autonomia Erkidegoko hizkuntza ofizial bien erabilera bermatuko dute, ematen diren erregelamenduzko xedapenak beteko dituzte eta informazio-trukea ahalbidetzeko neurri teknikoak hartuko dituzte. Bereziki, lan teknikoak, katalogoak eta baliabide teknikoak bi hizkuntzatan izatea bermatuko dute.

Halaber, herritarrei kulturarako irispidea bermatzeko, liburutegi publikoek beren funtsei buruzko informazioa eman beharko diete erabiltzaileei, eta funts horiek erabiltzen eta kontsultatzen utzi beharko diete, doan, nahiz eta erabilera muga daitekeen.

#### 9. artikulua. Euskadiko Liburutegi Sistemaren sartzearen ondorioak

Eusko Jaurlaritzan kulturaren alorreko eskumenak dituen sailak ahaleginak egingo ditu Euskadiko Liburutegi Sistemaren sartzen diren kideek aukera izan dezaten politika bateratuei ekiteko, informazioa trukatzeko, liburutegien arteko maileguak koordinatzeko, edukiak sistema digitaletara edo bestelako euskarrietara pasatzeko prozesuak planifikatzeko, liburutegi-ikerketak egiteko eta liburutegietan informaziorako eta komunikaziorako irispidea izateko zerbitzuak garatzeko.

### **Artículo 9 bis. Principios rectores de la gestión de los medios y recursos del Sistema Bibliotecario de Euskadi**

El departamento competente en materia de cultura orientará la gestión de los medios y recursos del Sistema Bibliotecario de Euskadi, teniendo en cuenta el principio de colaboración y adecuándolos al especial carácter plurilingüe del patrimonio bibliográfico vasco.

### **Artículo 9 ter. Gratuidad de los servicios bibliotecarios**

Las bibliotecas del Sistema Bibliotecario de Euskadi prestarán en todo caso de manera gratuita los servicios de consulta de las principales obras de referencia y los de préstamo individual de libros y de otros materiales.

## **TÍTULO III LA RED DE LECTURA PÚBLICA DE EUSKADI**

### **Artículo 10. Concepto, estructura y objetivos de la red de lectura pública de Euskadi**

1. La red de lectura pública de Euskadi es el conjunto organizado de servicios de bibliotecas de uso público general.
2. Forman parte de la red de lectura pública de Euskadi:
  - a) Las bibliotecas públicas municipales.
  - b) Las restantes bibliotecas de uso público general que se integren en la red de lectura pública mediante los correspondientes convenios.
3. Las bibliotecas de los centros públicos de enseñanza podrán formar parte de la red de lectura pública de Euskadi.
4. La red de lectura pública de Euskadi tiene como objetivo primordial proporcionar a los ciudadanos el acceso a sus registros culturales y de información, así como el más amplio acceso posible a los contenidos informativos y culturales externos, disponibles en el conjunto de servicios de las bibliotecas de uso público general.

### **Artículo 11. Requisitos de las bibliotecas de la red de lectura pública de Euskadi**

1. Las bibliotecas de la red dispondrán de fondos de carácter general, ofrecerán servicios de información de tipo cultural, educativo, recreativo y social, de consulta y de préstamo, y estarán abiertas a todos los ciudadanos, sin distinción de edad, raza, sexo, religión, nacionalidad o clase social.

### **9 bis artikulua. Euskadiko Liburutegi Sistemaren bitarteko eta baliabideak kudeatzeko printzipio gidariak**

Kulturaren alorreko eskumenak dituen sailak Euskadiko Liburutegi Sistemaren bitarteko eta baliabideen kudeaketa bideratuko du, lankidetzaren printzipioa kontuan izanez eta bitarteko eta baliabide horiek eskal bibliografia-ondarearen izaera eleaniztunari egokiz.

### **9 ter artikulua. Liburutegi-zerbitzuen doakotasuna**

Euskadiko Liburutegi Sistemako liburutegiek betiere doan emango dituzte bai erreferentzia-lan nagusiak kontsultatzeko zerbitzuak, bai liburuak eta bestelako materialak norbanakoei mailegatu uztekoak.

## **III. TITULUA EUSKADIKO IRAKURKETA PUBLIKOKO SAREA**

### **10. artikulua. Euskadiko irakurketa publikoko sarearen kontzeptua, egitura eta helburuak**

1. Erabilera publiko orokorreko liburutegi-zerbitzuen multzo antolatua da Euskadiko irakurketa publikoko sarea.
2. Liburutegi hauek sartzen dira Euskadiko irakurketa publikoko sarean:
  - a) Udal-liburutegi publikoak.
  - b) Hitzarmen bidez irakurketa publikoko sarean sartzen diren erabilera publiko orokorreko gainerako liburutegiak.
3. Ikastetxe publikoetako liburutegiak Euskadiko irakurketa publikoko sareko kide egin daitezke.
4. Euskadiko irakurketa publikoko sarearen helburu garrantzitsuenak da herritarrei sareko kultura- eta informazio-erregistroetara iristeko aukera ematea, eta ahalik eta aukera zabalena eskaintzea kanpoko informazio- eta kultura-erakundeetara, erabilera publiko orokorreko liburutegien zerbitzuetan daudenetara, iritsi ahal izateko.

### **11. artikulua. Euskadiko irakurketa publikoko sareko liburutegien betekizunak**

1. Irakurketa publikoko sareko liburutegiek izaera orokorreko funtsak izango dituzte; kultura-, hezkuntza-, jolas- eta gizarte-informazioko zerbitzuak eta kontsulta- eta mailegu-zerbitzuak emango dituzte, eta herritar guztientzat irekita egongo dira, horien adina, arraza, sexua, erlijioa, nazionalitatea edo gizarte-maila dena dela.



- |  |  |
|--|--|
| <p>2. Las bibliotecas de la red proporcionarán acceso gratuito al conjunto de los registros culturales y de información, quedando exceptuados los servicios que impliquen un coste singularizado, tales como los servicios de reprografía, préstamo interbibliotecario y acceso a bases de datos.</p> <p>3. Las bibliotecas de la red prestarán servicios diferenciados para adultos y niños.</p> <p>4. Asimismo, las bibliotecas de la red tendrán en cuenta la realidad sociolingüística de la Comunidad Autónoma de Euskadi, prestando sus servicios en euskera y castellano de conformidad con lo estipulado en la legislación vigente.</p> <p>5. Las bibliotecas de la red deberán prestar especial atención a las personas, grupos sociales y zonas geográficas que se encuentran en situación de desventaja, de manera que se garantice su efectivo acceso a ellas. Ofrecerán servicios y materiales especiales para aquellos usuarios que no puedan hacer uso de los servicios y materiales ordinarios, y, en este sentido, darán respuesta a las necesidades de aquellos que tienen dificultades para la lectura, con libros sonoros y otros documentos audiovisuales o con otros materiales impresos pensados para facilitar la lectura, y habilitarán los medios necesarios para que las personas impedidas para asistir a la biblioteca por enfermedad, discapacidad, edad o privación de libertad tengan acceso a sus fondos.</p> <p>Asimismo, garantizarán a las personas inmigrantes el acceso a la información, así como a los materiales que les ayuden tanto de cara a su integración social como a preservar su lengua y cultura de origen. Igualmente, se fomentará que se seleccionen materiales y se ofrezcan colecciones en su lengua.</p> <p>6. Los fondos de las bibliotecas de la red serán de libre acceso y susceptibles de préstamo. No obstante, cuando sea necesario por razones de seguridad y conservación, podrá limitarse el préstamo de dichos fondos, facilitando el acceso a estos materiales en otro tipo de soporte.</p> <p>7. Las bibliotecas de la red deberán contar con un espacio debidamente acondicionado para servicios presenciales, cuyos requisitos se determinarán reglamentariamente.</p> <p>9. Las bibliotecas de la red adquirirán los materiales y facilitarán el acceso a los recursos con arreglo a criterios de calidad y adecuación a las necesidades de la comunidad de usuarios.</p> | <p>2. Sareko liburutegiek doan emango dute kultura-eta informazio-erregistro guztietarako irispidea; salbuetsita geratzen dira, ordea, kostu bereziko zerbitzuak, hala nola erreprografia-zerbitzuak, liburutegien arteko maileguak eta datu-baseetarako irispidea.</p> <p>3. Sareko liburutegiek zerbitzu berezituak emango dituzte helduentzat eta haurrentzat.</p> <p>4. Halaber, sareko liburutegiek kontuan izango dute Euskal Autonomia Erkidegoko egoera soziolinguistikoa, eta zerbitzuak euskaraz eta gaztelaniaz emango dituzte, indarrean dagoen legerian ezarritakoaren arabera.</p> <p>5. Sareko liburutegiek arreta berezia eskainiko diete desabantaila-egoeran dauden pertsona, gizarte-talde eta geografia-guneei, benetan haietara irispidea izan dezaten. Zerbitzu eta material bereziak eskainiko dizkiete ohiko zerbitzu eta materialak erabili ezin dituzten erabiltzaileei, eta, ildo horretatik, irakurtzeko zailtasunak dituztenen beharrei erantzuteko neurriak hartuko dituzte, soinudun liburuak eta ikus-entzuzko bestelako dokumentuak edo irakurketa errazteko bestelako material inprimatuak erabiliz, eta behar diren bitartekoak jarriko dituzte liburutegira joan ezin diren gaixo, minusbaliatu, adindu edo askatasungabetuek funtsetara irispidea izan dezaten.</p> <p>Era berean, informaziora iristeko bidea bermatuko zaie etorkinei, baita gizarteratzeko eta beren jatorrizko hizkuntza eta kultura gordetzeko baliagarri zaizkien informazio eta materialetara iristekoa ere. Gainera, haien hizkuntzan dauden materialak eta bildumak aukera eta eskain daitezen bultzatuko da.</p> <p>6. Ez da eragozpenik izango sareko liburutegien funtsetara iristeko, ezta horiek maileguan hartzeko ere. Hala ere, segurtasun- eta kontserbazio-arrazoiengatik beharrezkoa denean, muga daiten funts horien mailegua, bestelako euskarri baten bidez material horietara iristeko aukera emanez.</p> <p>7. Sareko liburutegiek behar bezala egokitutako leku bat izango dute bertara joanda jasotzen diren zerbitzuetarako. Leku horren ezaugarriak erregelamenduz zehaztuko dira.</p> <p>9. Sareko liburutegiek, materialak eskuratzekoan eta baliabideetara iristeko bidea ematerakoan, kalitatea eta erabiltzaile-komunitatearen beharretara egokitzea izango dituzte irizpide.</p> |
|--|--|

#### Artículo 11 bis. Desarrollo de las colecciones

1. El desarrollo de la colección de una biblioteca se basará en el criterio profesional indepen-

#### 11 bis artikulua. Bildumen garapena

1. Liburutegi baten bildumaren garapena liburu-zainaren irizpide profesional independentean



diente del bibliotecario, al margen de influencias comerciales, y se basará en la consulta a órganos representativos de los usuarios, colectivos locales y otras instituciones educativas, culturales e informativas.

2. Las políticas de desarrollo de las colecciones serán revisadas de manera constante, con el fin de responder al cambio de necesidades y oportunidades. El desarrollo de las colecciones ha de ser un proceso transparente, y las políticas en las que se base deberán hacerse públicas.
3. Las bibliotecas de la red cooperarán en la adquisición y préstamo de las colecciones. Asimismo, colaborarán con las instituciones culturales, educativas e informativas de su entorno.
4. Las bibliotecas facilitarán el acceso a materiales que no formen parte de sus colecciones, con la ayuda de medios como los préstamos interbibliotecarios nacionales e internacionales y los servicios de obtención de documentos, incluida la utilización de servicios de información electrónicos y redes de información.

#### Artículo 11 ter. Acceso a redes electrónicas

Las bibliotecas facilitarán el acceso a redes electrónicas, de acuerdo con los siguientes criterios:

1. Aprovecharán plenamente el potencial de las redes de información, y, en particular, de Internet.
2. Procurarán el acceso electrónico a recursos de información para los usuarios y ofrecerán puntos públicos de acceso en los que se presten la asistencia y la orientación adecuadas, para permitir una utilización independiente de las redes de información.
4. Formularán políticas de utilización de Internet en las que se expresen los objetivos y los métodos relacionados con la oferta de acceso público a la información disponible en la red.
5. Respetarán los derechos de los usuarios, incluidos los relativos a la confidencialidad y a la intimidad.
6. Actualizarán continuamente sus directorios de acceso a Internet, teniendo en cuenta la tipología de usuarios y la realidad social de la comunidad a la que prestan sus servicios.

#### Artículo 12. Definición de servicios de las bibliotecas integradas en la red de lectura pública de Euskadi

Se consideran servicios básicos de biblioteca:

oinarrituko da, merkataritza-eraginetatik at, eta erabiltzaileen ordezkari-organoei, tokiko kolektiboek eta bestelako hezkuntza-, kultura- eta informazio-erakundeek kontsultatuz egingo da.

2. Bildumen garapenerako politikak etengabe aztertuko dira, behar- eta aukera-aldaketen arabera egokitzeko. Bildumen garapenak prozesu gardena izan behar du, eta oinarritzat dituen politikak publiko egin beharko dira.
3. Sareko liburutegiak lankidetzan arituko dira bildumak eskuratu eta mailegatzeko. Halaber, beren inguruko kultura-, hezkuntza- eta informazio-erakundeekin elkarlanean arituko dira.
4. Liburutegiek beren bildumetan ez dituzten materialetara iristeko aukera emango dute. Horretarako, liburutegien arteko mailegu nazionalak eta nazioartekoak baliatuko dituzte, bai eta dokumentuak lortzeko zerbitzuak ere, informazio-zerbitzu elektronikoak eta informazio-sareak barne.

#### 11 ter artikulua. Sare elektronikoetarako irispidea

Liburutegiek sare elektronikoetara iristeko aukera emango dute, eta, horretarako, irizpide hauek erabiliko dituzte:

1. Informazio-sareen ahalmena bete-betean baliatuko dute, bereziki Internetena.
2. Erabiltzaileei informazio-baliabideetara bide elektronikoz iristeko aukera emango diete, eta irisgune publikoak eskainiko dituzte, horietan informazio-sareak independentziaz erabili ahal izateko laguntza eta orientazio egokia emanez.
4. Internet erabiltzeko politikak prestatuko dituzte, eta sarean dagoen informaziora iristeko bide publikoen eskaintzaren inguruko helburu eta metodoak adierazi beharko dituzte horietan.
5. Erabiltzaileen eskubideak errespetatuko dituzte, isilpekotasunari eta intimitateari dagozkienak barne.
6. Etengabe eguneratuko dituzte Internetera sartzeko direktorioak, kontuan izanik bai erabiltzaileen tipologia eta bai zerbitzua ematen dioten komunitatearen errealitate soziala.

#### 12. artikulua. Euskadiko irakurketa publikoko sareko liburutegiek ematen dituzten zerbitzuen definizioa

Hauek joko dira oinarritzko liburutegi-zerbitzutzat:



- a) La lectura y consulta en sala de las principales obras de referencia, publicaciones monográficas y seriadas, de documentos electrónicos, audiovisuales y multimedia.
- b) El acceso a la información y referencia general y local.
- c) El préstamo individual de libros y de otros materiales.
- d) El préstamo interbibliotecario.
- e) El acceso a Internet y a los servicios de información en línea.
- f) Programas de formación de usuarios.

**Artículo 13. Derechos y deberes de los usuarios de las bibliotecas de la red de lectura pública de Euskadi**

1. Derechos generales de los usuarios.
  1. Los usuarios de las bibliotecas de la red de lectura pública de Euskadi tienen derecho a disponer, como mínimo, de los servicios básicos de biblioteca y de instalaciones y equipamientos bibliotecarios, así como del asesoramiento y ayuda necesarios para su utilización, de manera que se garantizarán:
    - a) Materiales y servicios adaptados a colectivos con necesidades especiales.
    - b) Acceso a la consulta de materiales en todo tipo de soporte, incluido el acceso telemático a redes de información.
    - c) Instalaciones y condiciones de accesibilidad adecuadas a la normativa vigente.
    - d) La utilización de las dos lenguas oficiales de la Comunidad Autónoma de Euskadi.
  2. Reglamentariamente se determinarán el horario mínimo y las condiciones generales de la prestación del servicio bibliotecario a efectos de garantizar los derechos de los usuarios red de lectura pública de Euskadi.

2. Obligaciones generales de los usuarios.

Los usuarios de la red de lectura pública de Euskadi tendrán la obligación de observar el comportamiento correcto y adecuado para el buen funcionamiento de las bibliotecas de la red, de acuerdo con lo establecido en esta ley,

- a) Aretoan bertan, erreferentzia-lan nagusiak, argitalpen monografiko eta seriatuak eta dokumentu elektronikoak, ikus-entzunezkoak eta multimedia irakurri eta kontsultatzea.
- b) Informazio eta erreferentzia orokor eta tokikora irispidea izatea.
- c) Norbanakoei liburuak eta bestelako materialak maileguan uztea.
- d) Liburutegien arteko maileguak.
- e) Internetera eta lineako informazio-zerbitzuetara irispidea izatea.
- f) Erabiltzaileentzako prestakuntza-programak.

**13. artikulua. Euskadiko irakurketa publikoko sareko liburutegien erabiltzaileen eskubideak eta betebeharrak**

1. Erabiltzaileen eskubide orokorrak.
  1. Euskadiko irakurketa publikoko sareko liburutegien erabiltzaileek eskubidea izango dute, gutxienez, liburutegietako oinarrizko zerbitzuak, instalazioak eta ekipamenduak izateko, baita horiek erabiltzeko aholkuak eta laguntza jasotzeko ere. Hala, honako hauek bermatuko dira:
    - a) Behar bereziak dituzten kolektiboentzako material eta zerbitzu egokituak.
    - b) Era guztietako euskarrietan dauden materialak kontsultatze bidea, baita informazio-sare telematikoetarako irispidea ere.
    - c) Indarrean dagoen araudiari egokitutako instalazioak eta irisgarritasun-baldintzak.
    - d) Euskal Autonomia Erkidegoko hizkuntza ofizial bien erabilera.
  2. Gutxieneko ordutegiak eta liburutegizerbitzua emateko baldintza orokorrak erregelamendu bidez zehaztuko dira, sareko erabiltzaileen eskubideak bermatzeko.

2. Erabiltzaileen betebeharrak orokorrak.

Euskadiko irakurketa publikoko sareko erabiltzaileek sareko liburutegiek ondo funtzionatzeko behar den portaera zuzena eta egokia gordeko dute, betiere lege honetan, lege hau garatzeko arauetan eta liburutegien titularrek emandakoe-

en sus normas de desarrollo y en las que dicten los titulares de las bibliotecas. En particular, tendrán las siguientes obligaciones:

- a) Respetar los derechos de los demás usuarios de la red, guardando el debido orden, respeto y compostura.
- b) No hacer uso de los centros o servicios bibliotecarios, sea de manera presencial o a distancia, para una finalidad distinta de la de ejercer su derecho como usuario.
- c) Cuidar de los materiales bibliotecarios, informativos y cualesquiera otros a los que se acceda.
- d) Cuidar de los bienes muebles e inmuebles de las bibliotecas y servicios bibliotecarios de la red.
- e) Abonar aquellos servicios no gratuitos que se presten por la red.
- f) Devolver los libros y, en general, los materiales prestados en las mismas condiciones en las que los retiraron en préstamo.
- g) Acreditar la condición de usuario al ser requerido a ello, tanto presencialmente como a distancia, por el personal que presta sus servicios en la red.
- h) Cumplir y respetar las normas de funcionamiento establecidas en cada centro o servicio y seguir las indicaciones y órdenes del personal que presta sus servicios en la red.

#### Artículo 14. Integración de una biblioteca en la red de lectura pública de Euskadi

Las bibliotecas previstas en el artículo 13, párrafo 2, apartado b), se integrarán en la red de lectura pública de Euskadi, previa verificación de los requisitos exigidos en la presente ley y normas de desarrollo, por una orden del consejero o consejera del departamento del Gobierno Vasco competente en materia de cultura, que se publicará en el Boletín Oficial del País Vasco.

#### Artículo 15. Condiciones y efectos de la integración de una biblioteca en la red de lectura pública de Euskadi

1. Las bibliotecas integradas en la red de lectura pública de Euskadi se ajustarán a los reglamentos dictados por el Gobierno Vasco.
2. La integración de una biblioteca en la red de lectura pública de Euskadi da derecho a acce-

tan ezarritakoaren arabera. Zehazki, betebeharrak izango dituzte:

- a) Sareko gainerako erabiltzaileen eskubiak errespetatzea, eta, ildo horretatik, behar den ordena, errespetua eta gizalgea gordetzea.
- b) Liburutegi-zentro edo -zerbitzuak ez erabiltzea, ez bertara joanda, ez urrutitik, erabiltzaile gisa bakoitzak dituen eskubiak gauzatzeko bestetarako.
- c) Erabiltzen diren liburutegi- eta informazio-materialak eta bestelakoak zaintzea.
- d) Sareko liburutegien eta liburutegi-zerbitzuen ondasun higigarri zein higiezinak zaintzea.
- e) Sareak eskaintzen dituen zerbitzuak ordaintzea, doakoak ez badira.
- f) Maileguan hartutako liburuak eta, oro har, materialak hartu ziren egoera berrean itzultzea.
- g) Sarean diharduten langileek hala eskatzen dutenean, erabiltzaile-izaera egiaztatzea, bai aurrez aurre, bai urrutitik.
- h) Zentro edo zerbitzu bakoitzean ezarritako funtzionamendu-arauak bete eta errespetatzea eta sarean diharduten langileen oharrak eta aginduak betetzea.

#### 14. artikulua. Liburutegiak Euskadiko irakurketa publikoko sarean sartzea

Lege honen 13. artikuluko 2. paragrafoko b) idatz-zatian aipatzen diren liburutegiak Eusko Jaurlaritzan kulturaren alorreko eskumenak dituen saileko buruaren agindu baten bitartez sartuko dira Euskadiko irakurketa publikoko sarean, betiere lege honetako eta lege hau garatzeko arauetako betekizunak betetzen direla egiaztatu ondoren. Sailburuaren agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko da.

#### 15. artikulua. Liburutegiak Euskadiko irakurketa publikoko sarean sartzeko baldintzak eta horren ondorioak

1. Euskadiko irakurketa publikoko sareko liburutegiek Eusko Jaurlaritzak emandako erregelamenduak bete beharko dituzte.
2. Euskadiko irakurketa publikoko sareko liburutegiek eskubidea izango dute Eusko Jaurlaritzan



der a los servicios de apoyo a la lectura pública que preste el departamento del Gobierno Vasco competente en materia de cultura, y que consistirán básicamente en:

- a) Asesoramiento, colaboración y apoyo en la adquisición de fondos.
- b) Formación permanente y reciclaje profesional del personal.
- c) Tratamiento de fondos duplicados y sobrantes.
- d) Apoyo técnico a las bibliotecas.
- e) Elaboración y gestión del catálogo colectivo de la red de lectura pública de Euskadi.
- f) Promoción de las bibliotecas.
- i) Información bibliográfica y documental selectiva.
- k) Coordinación del préstamo interbibliotecario y de fondos de apoyo al préstamo.

2 bis. Se aplicarán las normas técnicas y las normas relativas a las telecomunicaciones, redes electrónicas y equipamiento relacionado, para facilitar el intercambio de información a escala nacional e internacional.

3. El departamento del Gobierno Vasco competente en materia de cultura establecerá anualmente en sus presupuestos programas de ayudas y servicios a las bibliotecas, principalmente para la organización de redes informáticas, campañas de fomento de la lectura y uso de las bibliotecas y dotación de fondos, o de otra naturaleza.

4. Las bibliotecas integradas en la red de lectura pública de Euskadi gozarán de prioridad en el acceso a las ayudas que en materia bibliotecaria se arbitren por el departamento del Gobierno Vasco competente en materia de cultura.

5. El departamento del Gobierno Vasco competente en materia de cultura, en cooperación con las bibliotecas integradas en la red de lectura pública de Euskadi, habilitará, en el marco del mapa de lectura pública, los mecanismos necesarios para el desarrollo de una catalogación centralizada.

#### **Artículo 16. Inspección de la red de lectura pública de Euskadi**

Los centros integrados en la red de lectura pública de Euskadi tienen el deber de facilitar al departamento del Gobierno Vasco competente en materia de

kulturaren alorreko eskumenak dituen sailak irakurketa publikoa bultzatzeko ematen dituen zerbitzuetara irispidea izateko. Funtsean, hauek izango dira zerbitzuak:

- a) Aholkularitza, lankidetzeta eta sostengua, funtsak eskuratzeko orduan.
- b) Langileak etengabe prestatzea eta beren lanbiderako birziklatzea.
- c) Bikoiztuta dauden edo soberan diren funtsen tratamendua.
- d) Liburutegiei laguntza teknikoa ematea.
- e) Euskadiko irakurketa publikoko sarearen katalogo kolektiboa prestatu eta kudeatzea.
- f) Liburutegiak sustatzea.
- i) Informazio bibliografiko eta dokumental hautatua eskaintzea.
- k) Liburutegien arteko mailegua eta maileguaren laguntzarako funtsak koordinatzea.

2 bis. Arau teknikoak eta telekomunikazioei, sare elektronikoei eta haiekin erlazionaturako ekipamenduari dagozkien arauak aplikatuko dira, hartara nazio eta nazioarte mailako informazio-trukea errazteko.

3. Eusko Jaurlaritzan kulturaren alorreko eskumenak dituen sailak, urtero, laguntza-programak eta zerbitzuak jarriko ditu liburutegientzat bere aurrekontuetan, bereziki informatika-sareak antolatzeke, irakurzaletasuna eta liburutegien erabilera sustatzeko kanpainak egiteko, funtsak eskuratzeko eta beste helburu batzuetarako.

4. Euskadiko irakurketa publikoko sareko liburutegiek lehentasuna izango dute Eusko Jaurlaritzan kulturaren alorreko eskumenak dituen sailak liburutegien alorrerako ematen dituen laguntzak eskuratzeko.

5. Eusko Jaurlaritzan kulturaren alorreko eskumenak dituen sailak, Euskadiko irakurketa publikoko sarean dauden liburutegiekin lankidetzan arituz, katalogazio zentralizatua egiteko behar diren mekanismoak jarriko ditu irakurketa publikoaren maparen esparruan.

#### **16. artikulua. Irakurketa publikoko sarearen ikus- kapena**

Eusko Jaurlaritzan kulturaren alorreko eskumenak dituen sailak Euskadiko irakurketa publikoko sareko zentroei informazioa eskatzen badie indarrean da-



cultura la información que les solicite para comprobar el cumplimiento de la normativa vigente, y permitirán el acceso y la actuación de los técnicos del Departamento de Cultura.

#### **Artículo 17. Registro de las bibliotecas de la red de lectura pública de Euskadi**

El departamento del Gobierno Vasco competente en materia de cultura llevará un registro actualizado de las bibliotecas que constituyen la red de lectura pública de Euskadi, cuya organización y funcionamiento se desarrollará reglamentariamente.

#### **Artículo 18. Mapa de la red de lectura pública de Euskadi**

1. El mapa de la red de lectura pública es un instrumento de planificación bibliotecaria estratégica y operativa en el que se recogen las bibliotecas pertenecientes a la red de lectura pública de Euskadi, las necesidades de lectura pública y los módulos de servicio correspondientes a los distintos núcleos de población.
2. El mapa de la red de lectura pública determinará diversas áreas de lectura e identificará las bibliotecas de la red analizando los servicios que éstas deben prestar y las necesidades de financiación.
3. El departamento del Gobierno Vasco competente en materia de cultura, previa consulta al Consejo Asesor de Bibliotecas, aprobará y mantendrá actualizado el mapa de lectura pública.
4. El mapa de lectura pública establecerá pautas para medir la calidad del rendimiento en relación con los distintos tipos de bibliotecas y sus correspondientes misiones.
5. El mapa se actualizará periódicamente, de acuerdo con lo que se establezca reglamentariamente.

#### **Artículo 19. Personal de la red de lectura pública de Euskadi**

1. Las bibliotecas de la red de lectura pública contarán con el personal adecuado, con la cualificación y el nivel técnico que exijan las funciones que tenga asignadas conforme al mapa de lectura pública.
2. Las condiciones profesionales del personal técnico de las bibliotecas de la red se determinarán por reglamento.

#### **Artículo 20. Catálogo colectivo de la red de lectura pública de Euskadi**

El departamento del Gobierno Vasco competente en materia de cultura, para garantizar los crite-

goen araudia betetzen duten egiaztatzeko, zentroek eskatu zaien informazioa eman beharra izango dute, eta ez dute eragozpenik jarriko Kultura Saileko teknika-riek haietara sarbidea izateko eta beren lana egiteko.

#### **17. artikulua. Euskadiko irakurketa publikoko sareko liburutegien erregistroa**

Eusko Jaurlaritzan kulturaren alorreko eskumenak dituen sailak Euskadiko irakurketa publikoko sarea osatzen duten liburutegien erregistro eguneratua izango du. Erregistroaren antolaketa eta funtzionamendua erregelamendu bidez arautuko da.

#### **18. artikulua. Euskadiko irakurketa publikoko sarearen mapa**

1. Irakurketa publikoko sarearen mapa liburutegi-plangintza estrategiko eta operatiborako tresna da, eta bertan jasotzen dira Euskadiko irakurketa publikoko sareko liburutegiak, irakurketa publikoaren beharrak eta herrigune bakoitzari dagozkion zerbitzu-moduluak.
2. Irakurketa publikoko sarearen mapan hainbat irakurketa-barruti zehaztuko dira, eta sareko liburutegiak identifikatuko dira liburutegiek eman behar dituzten zerbitzuak eta horien finantziario-beharrak aztertuta.
3. Eusko Jaurlaritzan kulturaren alorreko eskumenak dituen sailak, Liburutegien Aholku Batzordeari kontsultatu ondoren, irakurketa publikoaren mapa onartuko du eta eguneratuta izango du.
4. Irakurketa publikoaren mapan, emaitzen kalitatea neurtzeko jarraibideak ezarriko dira mota bateko eta besteko liburutegiei eta haien zereginnei dagokienez.
5. Mapa aldian-aldian eguneratuko da, erregelamendu bidez zehazten denari jarraituz.

#### **19. artikulua. Euskadiko irakurketa publikoko sareko langileak**

1. Euskadiko irakurketa publikoko sareko liburutegiek langile egokiak izango dituzte, hau da, nork bere eginkizunak betetzeko behar duen prestakuntza eta maila teknikoa izango du, betiere irakurketa publikoaren maparen arabera.
2. Sareko liburutegietako langile teknikoen lanbide-baldintzak erregelamendu bidez zehaztuko dira.

#### **20. artikulua. Euskadiko irakurketa publikoko sarearen katalogo kolektiboa**

Euskadiko irakurketa publikoko sareko liburutegietako funtsen katalogazio bateratu eta partekatua

rios de la catalogación unificada y compartida de todos los fondos de las bibliotecas integradas en la red de lectura pública de Euskadi y el conocimiento mutuo de sus fondos, coordinará y gestionará el correspondiente catálogo colectivo.

#### Artículo 21. Organización de la red de lectura pública de Euskadi

1. Según su ámbito de actuación, las bibliotecas y servicios bibliotecarios de la red podrán ser:
  - a) Bibliotecas centrales urbanas.
  - b) Bibliotecas locales.
  - c) Servicios bibliotecarios móviles.
  - d) Centros de apoyo a la lectura pública.
2. Los municipios de más de 30.000 habitantes dispondrán de bibliotecas centrales urbanas, que ejercerán una labor de coordinación de sus bibliotecas y servicios bibliotecarios de su término municipal.
3. Los municipios de más de 5.000 habitantes dispondrán de bibliotecas locales. El Gobierno Vasco velará por que los municipios de entre 3.000 y 5.000 habitantes dispongan de bibliotecas locales, y, en el caso de municipios de población inferior, promoverá su agrupación a efectos de prestar el servicio de biblioteca.
4. Servicios bibliotecarios móviles: en los términos y condiciones que se señalen en el mapa de lectura pública, estos servicios tienen como finalidad garantizar el acceso a la información y ofrecer servicio de lectura pública en aquellas zonas o localidades donde se carezca de un servicio estático.
5. Centros de apoyo a la lectura pública: tendrán esta consideración aquellos centros que prestan servicio en municipios que no están obligados al mantenimiento de un servicio de biblioteca.

#### TÍTULO IV LA BIBLIOTECA DE EUSKADI

##### Artículo 22. Definición

1. La Biblioteca de Euskadi, cabecera del sistema, es la encargada de recoger, conservar y difundir las obras editadas o producidas en Euskadi y en el ámbito lingüístico del euskera en cualquier tipo de soporte, así como las relacionadas con la lengua o la cultura vasca, en especial las obras creadas por autores vascos y las obras creadas en euskera. A tal efecto, se coordinará y complementará con el resto de las instituciones públicas de la Comunidad Autónoma del País Vasco concurrentes en este ámbito.
2. La Biblioteca de Euskadi velará por la conservación y la difusión del patrimonio bibliográfico

egiteko irizpideak bermatzeko eta liburutegiok batak besteen funtsak ezagutzen dituztela ziurtatzeko, Eusko Jaurlaritzan kulturaren alorreko eskumenak dituen sailak katalogo kolektiboa koordinatu eta kudeatuko du.

#### 21. artikulua. Irakurketa publikoko sarearen antolaketa

1. Zein arlotan diharduten kontuan hartuta, sareko liburutegiak eta liburutegi-zerbitzuak mota hauetakoak izan daitezke:
  - a) Hiri-liburutegi nagusiak.
  - b) Herrietako liburutegiak.
  - c) Liburutegi-zerbitzu mugikorak.
  - d) Irakurketa publikoa bultzatzeko zentroak.
2. Hogeita hamar mila biztanletik gorako udalerriek hiri-liburutegi nagusiak izango dituzte. Horiek udalerriko beren liburutegi eta liburutegi-zerbitzuak koordinatuko dituzte.
3. Bost mila biztanletik gorako udalerriek herriko liburutegiak izango dituzte. Eusko Jaurlaritzak ahaleginak egingo ditu 3.000 eta 5.000 biztanle arteko udalerriek herriko liburutegiak izan ditzaten, eta, biztanle gutxiagoko udalerrien kasuan, horiek biltzea sustatuko du, liburutegi-zerbitzua eman ahal izan dezaten.
4. Liburutegi-zerbitzu mugikorak: zerbitzuon helburua da informaziorako irispidea bermatzea eta zerbitzu egonkorrik ez duten alde edo herrietan irakurketa publikoko zerbitzua eskaintzea, betiere irakurketa publikoaren mapan zehaztutako moduan eta baldintzetan.
5. Irakurketa publikoa bultzatzeko zentroak: liburutegi-zerbitzu bat izatera behartuta ez dauden udalerrietan irakurketa publikoa sustatzeko sortutako zentroak dira.

#### IV. TITULUA EUSKADIKO LIBURUTEGIA

##### 22. artikulua. Definizioa

1. Euskadiko Liburutegia sistemaren buru izango da eta bera arduratuko da Euskadin eta euskararen hizkuntza-esparruan argitaratu edo ekotzitako lanak eta euskararekin edo euskal kulturarekin erlazionatutakoak –bereziki euskal autoreek egindakoak eta euskaraz egindakoak– bildu, kontserbatu eta zabaltzeaz, euskarria dena dela. Horretarako, Euskal Autonomia Erkidegoan alor honetan diharduten gainerako erakunde publikoekin koordinatuko da, horiek osagarri izango dituelarik.
2. Euskadiko Liburutegiak ahaleginak egingo ditu Euskadiko bibliografia-ondarea kontserba eta



de Euskadi, que comprende, además de las obras descritas en el apartado 1, las obras bibliográficas que se hallen en Euskadi y que tienen valores históricos o culturales relevantes, de acuerdo con lo que establece la legislación sobre patrimonio cultural.

3. La Biblioteca de Euskadi, centro bibliográfico de la Comunidad Autónoma, se constituirá como centro de consulta y de investigación internacional de la cultura vasca, mediante las adquisiciones pertinentes o por cualquiera otra de las vías previstas en la legislación.
4. La Biblioteca de Euskadi se constituye en sede del patrimonio digital vasco.

### Artículo 23. Naturaleza, estructura y funcionamiento

La Biblioteca de Euskadi es un organismo autónomo adscrito al Departamento del Gobierno Vasco competente en materia de cultura, cuya estructura y funcionamiento se determinará legalmente.

### Artículo 24. Funciones

1. La Biblioteca de Euskadi ejerce en todo el territorio de la Comunidad Autónoma las funciones siguientes:
3. Hauek izango dira Liburutegien Aholku Batzardearen eginkizunak:
  - a) Euskadiko Liburutegi Sistemaren informazio-, kontsulta- eta aholku-organo izatea.
  - b) Liburutegien alorreko eskumenak dituen sailari neurriak proposatzea Euskadiko Liburutegi Sistemaren helburuak hobeto betetzeko.
  - c) Euskadiko Liburutegi Sistemari buruzko planak ezagutzea eta horiei buruzko irizpena ematea.
  - d) Beharrezko irizpitako neurriak proposatzea irakurzaletasuna eta informazioaren erabilera sustatzeko.
  - e) Liburutegiei buruzko erregelamenduzko arauen proposamenez irizpenak ematea.
4. Liburutegien Aholku Batzardearen barruan batzarde bereziak eratu ahal izango dira, lege hau garatzeko arauetan ezarritakoarekin bat etorritik. Batzardeak berak erabakiko ditu horien osiera eta eginkizunak.
5. Osaera erregelamendu bidez arautuko da, Euskadiko Liburutegi Sistema osatzen duten sektore eta erakunde guztien partaidetza bermatuta, baita liburutegien eta bibliografia-

ciaciones, entidades y personalidades de prestigio en el ámbito de las bibliotecas y patrimonio bibliográfico.

ondarearen arloan ospea duten elkarte, entitate eta pertsonena ere.

## TÍTULO IX RÉGIMEN SANCIONADOR

### Artículo 45. Disposiciones generales

1. Además de las previstas con carácter general en la Ley de Patrimonio Cultural del País Vasco, constituyen infracciones administrativas específicas en materia de bibliotecas las acciones y omisiones que se tipifican en este título.
2. Las normas de desarrollo de la ley podrán concretar, de acuerdo con sus elementos esenciales, los tipos infractores regulados en el presente título, sin que aquéllas puedan, en ningún caso, afectar a su naturaleza o a los límites de las sanciones establecidas en esta ley.
3. Las acciones u omisiones que afecten a datos personales de los usuarios del Sistema Bibliotecario de Euskadi se sancionarán de acuerdo y en los términos de la normativa reguladora de la protección de datos de carácter personal.

### Artículo 46. Clasificación de las infracciones

Las infracciones administrativas se clasifican en leves, graves y muy graves.

### Artículo 47. Infracciones leves

Constituyen infracciones leves las siguientes acciones u omisiones:

1. Las que incumplan la obligación de observar el comportamiento correcto y adecuado para el buen funcionamiento de los servicios del Sistema Bibliotecario de Euskadi, de acuerdo con lo establecido en esta ley, y, en particular, las siguientes:
  - a) No respetar los derechos de los demás usuarios, cuando esta conducta no constituya infracción grave.
  - b) No guardar el debido orden, respeto y compostura, o alterar de cualquier forma dicho orden, en el uso de las bibliotecas y demás servicios del Sistema Bibliotecario de Euskadi.
  - c) Hacer uso de los centros o servicios bibliotecarios, ya sea de manera presencial o a distancia, para una finalidad distinta de la de ejercer su derecho como usuario, cuando no constituya infracción grave.
  - d) Maltratar o dañar los materiales bibliotecarios, informativos y cualesquiera otros

## IX. TITULUA ZEHATZEKO ARAUBIDEA

### 45. artikulua. Xedapen orokorrak

1. Euskal Kultura Ondarearen Legean aipatzen diren arau-hauste orokorrez gain, titulu honetan aipatzen diren egiteak eta ez-egiteak liburutegi-entzako arau-hauste administratibo berezitat joko dira.
2. Legea garatzeko arauetan titulu honetan araututako arau-hauste tipoa zehaztu ahal izango dira, beren funtsezko elementuen arabera. Garapen-arauetan, ordea, ezin izango dira inolaz ere aldatu arau-hauste tipo horien izaera edo lege honetan zehaztutako mugak.
3. Euskadiko Liburutegi Sistemaren erabiltzaileen datu pertsonalekin zerikusia duten egiteak edo ez-egiteak datu pertsonalen babeserako araudiaren arabera zehatuko dira.

### 46. artikulua. Arau-hausteen sailkapena

Arau-hauste administratiboak arinak, larriak eta oso larriak izan daitezke.

### 47. artikulua. Arau-hauste arinak

Egite eta ez-egite hauek izango dira arau-hauste arinak:

1. Euskadiko Liburutegi Sistemako zerbitzuek ondo funtzionatzeko behar den portaera zuzen eta egokia gordetzeko betebeharra ez betetzea, lege honetan ezarritakoaren arabera, eta, zehazki, honako hauek:
  - a) Beste erabiltzaileen eskubideak ez errespetatzea, portaera hori arau-hauste larria ez denean.
  - b) Euskadiko Liburutegi Sistemako liburutegiak eta gainerako zerbitzuak erabiltzean, behar den ordena, errespetua eta gizalegea ez erakustea edo ordena hori edozein modutan haustea.
  - c) Liburutegi-zentro edo -zerbitzuak, bertara joanda edo urrutitik, erabiltzaile-eskubideak gauzatzea ez den beste zerbitzuetarako erabiltzea, hori arau-hauste larria ez denean.
  - d) Liburutegi-materialak, informaziozkoak edo beste edozein material gaizki trata-

- |    |   |    |   |
|----|---|----|---|
|    | a los que se acceda, cuando no constituya infracción grave.   |    | tzea edo hondatzea, hori arau-hauste larria ez denean.  |
| e) | Maltratar o dañar los bienes muebles e inmuebles de las bibliotecas y demás servicios del Sistema Bibliotecario de Euskadi, cuando no constituya infracción grave.  | e) | Euskadiko Liburutegi Sistemako liburutegien eta gainerako zerbitzuen ondasun higigarri zein higiezinak gaizki tratatzea edo hondatzea, hori arau-hauste larria ez denean.                               |
| f) | Perder o no devolver los libros o, en general, los materiales prestados.  | f) | Maileguan utzitako liburuak eta, oro har, materialak galtzea edo ez itzultzea.  |
| g) | Negarse a acreditar la condición de usuario, cuando éste sea requerido a tal efecto por el personal que preste sus servicios en las bibliotecas y demás servicios del Sistema Bibliotecario de Euskadi.   | g) | Euskadiko Liburutegi Sistemako liburutegietan eta gainerako zerbitzuetan lan egiten dutenek erabiltzaile-izaera egiaztatzeko eskatzen dutenean, horri uko egitea.                                       |
| h) | El incumplimiento de las órdenes e indicaciones dadas en el ejercicio de sus funciones por el personal que preste sus servicios en las bibliotecas y demás servicios del Sistema Bibliotecario de Euskadi, y, en general, el trato irrespetuoso a dicho personal. | h) | Euskadiko Liburutegi Sistemako liburutegietan eta gainerako zerbitzuetan lan egiten dutenek emandako aginduak edo egindako oharrak ez betetzea eta, oro har, pertsona horiekin errespetuz ez jokatzeta. |
| 2. | El incumplimiento de cualquier otra obligación establecida en esta ley que no deba ser calificada de infracción grave.  | 2. | Lege honetan ezarritako edozein betebeharrak ez betetzea, baldin eta hori arau-hauste larria ez bada.   |

#### Artículo 48. Infracciones graves

Constituyen infracciones graves:

- Las acciones u omisiones que impidan, limiten o de cualquier otro modo menoscaben sin causa justificada el derecho de los usuarios al acceso, presencial o a distancia, a la información.
- Las acciones u omisiones que dolosamente produzcan la pérdida, la destrucción o, en general, la inutilización de los materiales bibliotecarios o informativos o de otros bienes muebles o inmuebles de las bibliotecas y demás servicios del Sistema Bibliotecario de Euskadi.
- Las acciones u omisiones que impidan sin causa justificada el acceso de los investigadores a los bienes integrantes del Depósito Bibliográfico Vasco.
- La negativa u obstrucción a las autoridades y funcionarios de la Administración general de la Comunidad Autónoma de Euskadi en el ejercicio de sus funciones de inspección en relación con las obligaciones establecidas para los titulares y gestores del Sistema Bibliotecario de Euskadi.
- El incumplimiento o el retraso sin causa justificada del deber de información establecido en el artículo 8 de esta ley.

#### 48. artikulua. Arau-hauste larriak

Hauek dira arau-hauste larriak:

- Erabiltzaileek liburutegian bertan edo urrutitik informaziora irispidea izateko duten eskubidea arrazoi justifikaturik gabe urratu, mugatu edo edozein modutan laburtzen duten egiteak edo ez-egiteak.
- Euskadiko Liburutegi Sistemako liburutegien eta gainerako zerbitzuen liburutegi-materialak edo informaziozkoak edo ondasun higigarri zein higiezinak galtzea, suntsitzea edo, oro har, erabiltzean bihurtzea dakarten dolozko egiteak edo ez-egiteak.
- Ikertzaileei Euskal Bibliografia Gordailuko ondasunetarako irispidea arrazoi justifikaturik gabe eragozten dieten egiteak edo ez-egiteak.
- Euskadiko Liburutegi Sistemaren titular eta kudeatzaileentzat ezarritako betebeharrak direla eta ikuskapenak egitera joaten direnean, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio orokorreko agintari eta funtzionarioei beren lana eragozteko edo oztopatzea.
- Lege honen 8. artikuluan ezarritako informazio-betebeharrak arrazoi justifikaturik gabe ez betetzea edo atzeratzea.

6. El incumplimiento de las obligaciones establecidas en esta ley de las normas reguladoras del depósito bibliográfico vasco.
7. La comisión de infracción leve cuando concurren dos o más circunstancias agravantes y no concorra alguna atenuante.

Si de la inspección de una biblioteca integrada en la red de lectura pública de Euskadi se desprende que no cumple la normativa referida a personal, condiciones técnicas de las infraestructuras, bases generales y funcionamiento de la gestión bibliotecaria, catalogación y clasificación de fondos, coordinación de las bibliotecas integradas en la red de lectura pública de Euskadi o mantenimiento del catálogo colectivo de la lectura pública, el titular de la biblioteca adoptará las medidas correctoras que establezca el departamento competente en materia de cultura. En caso contrario, el titular de la biblioteca perderá el derecho de acceso a los servicios de apoyo a la lectura pública.

8. Hacer uso de los centros o servicios bibliotecarios, ya sea de manera presencial o a distancia, para una finalidad distinta de la de ejercer su derecho como usuario, con el propósito de causar cualquier tipo de daños en el sistema o en los centros bibliotecarios.

#### Artículo 49. Infracciones muy graves

Constituyen infracciones muy graves:

1. Las acciones u omisiones que impidan, limiten o de cualquier otro modo menoscaben sin causa justificada el derecho de acceso, presencial o a distancia, a los registros culturales y de información, con infracción del principio de igualdad por motivos de ideología, religión, nacionalidad, situación jurídica o cualquier otra condición o circunstancia social o personal o por motivos del contenido religioso, ideológico, moral o político de los citados registros.
2. La comisión de infracción grave cuando concurren dos o más circunstancias agravantes y no concorra alguna atenuante.

#### Artículo 50. Responsables de las infracciones

1. Son responsables de las infracciones, aun a título de mera inobservancia, las personas físicas o jurídicas que realicen las acciones u omisiones tipificadas en la presente ley.
2. Los titulares de las bibliotecas serán responsables administrativamente de las infracciones cometidas por su personal o por terceras personas que, sin vínculo jurídico funcional o laboral con aquéllos, presten servicios a los usuarios del Sistema Bibliotecario de Euskadi.

6. Lege honetan euskal bibliografia-gordailua erregulatzeko ematen diren arauetan ezarritako betebeharrak ez betetzea.

7. Arau-hauste arin bat egitea inguruabar larrigarri bi edo gehiago daudenean eta aringarririk ez.

Euskadiko irakurketa publikoko sareko liburutegi bat ikuskatzean ondorioztatzen bada liburutegi hark ez duela betetzen araudia, hots, ez duela betetzen langileei, azpiegituren baldintza teknikoak, liburutegien kudeaketaren oinarri orokorrei eta funtzionamenduari, funtsen katalogazio eta sailkatzeari, Euskadiko irakurketa publikoko sareko liburutegien koordinazioari edo irakurketa publikoko katalogo kolektiboaren mantentze-lanei buruzko araudia, kulturaren alorreko eskumenak dituen sailak ezarritako neurri zuzentzaileak hartu beharko ditu liburutegiaren titularrak. Horrela egiten ez badu, galdu egingo du irakurketa publikoa bultzatzeko zerbitzuetara irispidea izateko eskubidea.

8. Liburutegi-zentro edo -zerbitzuak, bertara joanda edo urrutitik, erabiltzaile-eskubideak gauzatzeko ez den beste zerbaitetarako erabiltzea, liburutegi-sisteman edo -zentroetan edozein eratako kalteak eragiteko asmoz.

#### 49. artikulua. Arau-hauste oso larriak

Hauek dira arau-hauste oso larriak:

1. Erabiltzaileek liburutegian bertan edo urrutitik kultura- eta informazio-erregistroetara irispidea izateko duten eskubidea arrazoi justifikaturik gabe urratu, mugatu edo edozein modutan laburtzen duten egiteak edo ez-egiteak, baldin eta berdintasun-prin-tzipioa hautsi bada bai ideologia, erlijioa, nazionalitatea, egoera juridikoa edo bestelako baldintza edo gorabehera sozial edo pertsonala dela-eta, bai erregistroen eduki erlijioso, ideologiko, moral edo politikoa dela-eta.
2. Arau-hauste larri bat egitea, inguruabar larrigarri bi edo gehiago daudenean eta aringarririk ez.

#### 50. artikulua. Arau-hausteen erantzuleak

1. Lege honetan tipifikatutako egiteak edo ez-egiteak burutzen dituzten pertsona fisiko edo juridikoak izango dira arau-hausteen erantzule, baita ez-betetze mailan ere.
2. Liburutegien titularrak izango dira, administrazioaren aurrean, Euskadiko Liburutegi Sistemako erabiltzaileei zerbitzuak emateko hartutako langileen edo hirugarren pertsonen arau-hausteen erantzule, baldin eta pertsona horiek ez badute haiekin funtzionario- edo lan-lotura juridikorik.



3. Los padres, tutores o personas que ejerzan la guarda del usuario menor de edad serán responsables subsidiarios de las sanciones pecuniarias que le sean impuestas.

#### Artículo 51. Circunstancias agravantes y atenuantes de las infracciones

1. Se consideran circunstancias agravantes:
  - a) La existencia de intencionalidad.
  - b) La gravedad de la afectación a los derechos de los demás usuarios.
  - c) La gravedad del maltrato o del daño causado a los materiales bibliotecarios, informativos y cualesquiera otros a los que se acceda, o a los bienes muebles o inmuebles de las bibliotecas y demás servicios del Sistema Bibliotecario de Euskadi.
  - d) La reincidencia. Se entenderá por reincidencia la comisión de más de una infracción de la misma naturaleza en el término de un año cuando así haya sido declarado por resolución firme. El plazo se computará desde la notificación de la sanción impuesta por la anterior infracción.
2. No podrá apreciarse la concurrencia de una circunstancia agravante cuando constituya elemento del tipo infractor.
3. Se apreciarán como circunstancias atenuantes la minoría de edad, la reparación espontánea del daño o perjuicio causado o el cumplimiento de la obligación durante la tramitación del procedimiento sancionador.
4. La concurrencia de circunstancias agravantes o atenuantes se apreciará a efectos de determinar la cuantía o duración de la sanción.

#### Artículo 52. Tipos de sanciones

1. Las infracciones previstas en esta ley darán lugar a la imposición de las siguientes sanciones:
  - a) Sanciones principales:
    - Apercibimiento.
    - Multa.
  - b) Sanciones accesorias:
    - Suspensión temporal de los derechos de usuario.
    - Suspensión temporal de los beneficios de la pertenencia al Sistema

3. Gurasoak, tutoreak edo erabiltzaile adingabearen zaintza egiten duten pertsonak izango dira hari ezartzen zaizkion diruzko zehapenen erantzule subsidiarioak

#### 51. artikulua. Arau-hausteen inguruabar larri-garriak eta aringarriak

1. Hauek dira inguruabar larri-garriak:
  - a) Nahita egitea.
  - b) Arau-haustek beste erabiltzaileen esku-bideetan duen eraginaren larritasuna.
  - c) Euskadiko Liburutegi Sistemako liburutegien eta gainerako zerbitzuen liburutegi-materialak, informaziozkoak eta erabiltzen diren bestelakoak edo ondasun higi-garri zein higiezinak gaizki tratatzearen edo hondatzearen larritasuna.
  - d) Berrerortzea. Berrerortzea izango da urtebetean izaera berebeko arau-hauste bat baino gehiago egitea, ebazpen irmoz horrela deklaratu denean. Epea aurreko arau-hausteagatik ezarritako zehapena jakinarazi zenetik hasiko da kontatzen.
2. Arau-haustetzat jotzen direnak ezin izango dira inguruabar larri-garritzat jo.
3. Honako hauek inguruabar aringarritzat joko dira: adingabea izatea, eragindako kaltea edo galera eragileak bere kabuz berdintzea edo betebeharra zehapen-prozedura izapidetzen den bitartean betetzea.
4. Zehapenaren zenbatekoa edo iraupena zehazteko orduan, kontuan hartuko da inguruabar larri-garri edo aringarririk dagoen.

#### 52. artikulua. Zehapen motak

1. Lege honetan aurreikusitako arau-hausteengatik zehapen hauek jarriko dira:
  - a) Zehapen nagusiak:
    - Ohartarazpena.
    - Isuna.
  - b) Zehapen erantsiak:
    - Erabiltzaile-esku-bideak aldi baterako etetea.
    - Euskadiko Liburutegi Sistemako edo irakurketa publikoko sareko

- |  |  |
|--|--|
| <p style="text-align: center;">Bibliotecario de Euskadi o a la red de lectura pública.</p> <p>2. Carecen de naturaleza sancionadora:</p> <p>a) La medida de expulsión de un usuario de una biblioteca en los supuestos de grave alteración del orden en la prestación del servicio.</p> <p>b) La incautación de la garantía constituida en el caso de incumplimiento de la obligación de devolver los libros u otros materiales prestados.</p> <p>c) La obligación de indemnizar los daños y perjuicios por la pérdida, la destrucción o, en general, la inutilización de los materiales bibliotecarios o informativos, o de otros bienes muebles o inmuebles de las bibliotecas y demás servicios del Sistema Bibliotecario de Euskadi, o que, en general, sean consecuencia del incumplimiento de las obligaciones establecidas en esta ley. La indemnización se hará efectiva, en primer término, sobre la garantía, pero subsistirá y será exigible la obligación de indemnizar en la cuantía que no resulte cubierta por la garantía incautada.</p> | <p style="text-align: center;">kide izateak dakartzan onurak aldi baterako etetea.</p> <p>2. Hauek ez dira zehapentzat joko:</p> <p>a) Erabiltzaile bat liburutegitik botatzea ematen den zerbitzuan ordena larriki hausteagatik.</p> <p>b) Ezarritako bermea konfiskatzea maileguan utzitako liburuak edo bestelako materialak itzultzeko betebeharra bete ezik.</p> <p>c) Euskadiko Liburutegi Sistemako liburutegien eta gainerako zerbitzuen liburutegi-materialak eta informaziozkoak edo bestelako ondasun higigarri zein higiezinak galdu, suntsitu edo, oro har, erabilezin bihurtzeak edo lege honetako betebeharrak ez betetzeak sortutako kalte eta galeren ordaina emateko betebeharra. Kalte-ordaina bermetik kenduko da hasiera batean, baina horrekin ezin bada dena ordaindu, gainerakoa ordaintzeko betebeharrak bere horretan jarraituko du eta ordaintzea eska daiteke.</p> |
|--|--|

### Artículo 53. Sanciones

1. Las infracciones calificadas como leves serán sancionadas con apercibimiento o multa de hasta 3.000 euros. Se podrá imponer como sanción accesoria la suspensión de los derechos del usuario por un plazo de hasta seis meses.
2. Las infracciones calificadas como graves serán sancionadas con multa desde 3.001 euros hasta 15.000 euros. Se podrá imponer como sanción accesoria la suspensión de los derechos del usuario por un plazo de hasta un año o de los beneficios de la pertenencia al Sistema Bibliotecario de Euskadi por un plazo de hasta dos años.
3. Las infracciones calificadas como muy graves serán sancionadas con multa desde 15.001 euros hasta 60.000 euros. Se podrá imponer como sanción accesoria la suspensión de los derechos del usuario por un plazo de hasta dos años o de los beneficios de la pertenencia al Sistema Bibliotecario de Euskadi por un plazo de hasta tres años.

### DISPOSICIONES ADICIONALES

#### Primera

En el plazo máximo de seis meses a partir de la entrada en vigor de esta ley se constituirá el Consejo Asesor de Bibliotecas de Euskadi.

### 53. artikulua. Zehapenak

1. Arau-hauste arinengatik, ohartarazpena edo 3.000 eurorainoko isuna jarriko da zehapen modura. Zehapen erantsi gisa, erabiltzaile-eskubideak eten daitezke, sei hilabeterako gehienez.
2. Arau-hauste larriengatik, 3.001 eta 15.000 euro bitarteko isuna jarriko da. Zehapen erantsi gisa, erabiltzaile-eskubideak eten daitezke, urtebeterako gehienez, edo Euskadiko Liburutegi Sistemako kide izateak dakartzan onurak eten daitezke, bi urterako gehienez.
3. Arau-hauste oso larriengatik, 15.001 eta 60.000 euro bitarteko isuna jarriko da. Zehapen erantsi gisa, erabiltzaile-eskubideak eten daitezke, bi urterako gehienez ere, edo Euskadiko Liburutegi Sistemako kide izateak dakartzan onurak eten daitezke, hiru urterako gehienez ere.

### XEDAPEN GEHIGARRIAK

#### Lehenengoa

Lege hau indarrean sartu eta gehienez ere sei hilabeteko epean, Euskadiko Liburutegien Aholku Batordea eratuko da.



## Segunda

En el plazo máximo de un año a partir de la constitución del Consejo Asesor de Bibliotecas de Euskadi se aprobará el mapa de lectura pública.

## Tercera

El Gobierno Vasco impulsará la creación de redes que permitan la coordinación e información entre las bibliotecas que, siendo poseedoras de fondos significativos relacionados con la lengua o la cultura vasca, se encuentren ubicadas fuera del ámbito territorial de la Comunidad Autónoma del País Vasco, y, en particular, entre las bibliotecas de los centros vascos-euskal etxeak.

## Cuarta

En el plazo máximo de 18 meses a partir de la entrada en vigor de esta ley se constituirá la Biblioteca Nacional Vasca.

### DISPOSICIONES TRANSITORIAS

#### Primera

Las bibliotecas municipales dispondrán de un plazo máximo de cinco años, a partir de la publicación del mapa de lectura pública en el Boletín Oficial del País Vasco, para llegar al pleno cumplimiento de los requisitos exigidos a las bibliotecas de la red de lectura pública de Euskadi.

#### Segunda

El Servicio de Bibliotecas del Departamento de Cultura del Gobierno Vasco ejercerá las funciones atribuidas a la Biblioteca Nacional Vasca hasta su puesta en funcionamiento.

### DISPOSICIÓN DEROGATORIA

Quedan expresamente derogados los artículos 67 y 68 y el capítulo II del título IV de la Ley 7/1990, de 3 de julio, de Patrimonio Cultural Vasco, y cuantas disposiciones de igual o inferior rango contravengan lo dispuesto en la presente ley.

### DISPOSICIONES FINALES

#### Primera

Se modifica el artículo 66 de la Ley 7/1990, de Patrimonio Cultural Vasco, que quedará redactado en los siguientes términos:

"Recibe la denominación de patrimonio bibliográfico vasco la producción bibliográfica en cualquier tipo de soporte de las obras editadas o producidas en Euskadi y en los territorios del euskera, así como de las relacionadas con la lengua o la cultura vasca, en especial las obras creadas por autores vascos y las obras creadas en euskera.

## Bigarrena

Euskadiko Liburutegien Aholku Batzordea eratu eta gehienez ere urtebeteko epean, irakurketa publikoaren mapa onartuko da.

## Hirugarrena

Eusko Jaurlaritzak liburutegien arteko koordinazio eta informaziorako balioko duten sareak sor daitezzen bultzatuko du, Euskal Autonomia Erkidegotik kanpo dauden liburutegiei dagokienez, euskal etxeetakoei dagokienez bereziki, baldin eta liburutegi horiek euskararekin edo euskal kulturarekin erlazionatutako funts garrantzitsuak badituzte.

## Laugarrena

Lege hau indarrean sartu eta gehienez ere 18 hilabetera eratuko da Euskal Liburutegi Nazionala.

### XEDAPEN IRAGANKORRAK

#### Lehenengoa

Udal-liburutegiek bost urteko epea izango dute, gehienez, irakurketa publikoaren mapa Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen denetik, Euskadiko irakurketa publikoko sareko liburutegiei eskatzen zaizkien betekizunak guztiz betetzeko.

#### Bigarrena

Euskal Liburutegi Nazionala abian jarri arte, Eusko Jaurlaritzako Kultura Saileko Liburutegi Zerbitzuak beteko ditu haren eginkizunak.

### XEDAPEN INDARGABETZAILEA

Indarrrik gabe gelditzen dira Euskal Kultura Ondarearen uztailaren 3ko 7/1990 Legearen 67 eta 68. artikulua eta IV. tituluko II. kapitulua, bai eta lege honen aurka doazen maila bereko edo beheragoko xedapen guztiak ere.

### AZKEN XEDAPENAK

#### Lehenengoa

Aldatu egiten da Euskal Kultura Ondarearen 7/1990 Legearen 66. artikulua. Honela geldituko da:

"Bibliografia-ekoizpen hauek joko dira euskal bibliografia-ondareztat: Euskadin eta euskararen lurraldeetan argitaratu edo ekoiztutako lanak eta euskararekin edo euskal kulturarekin erlazionatutakoak, bereziki euskal autoreek egindakoak eta euskaraz egindakoak, horien euskarria dena dela.

El patrimonio bibliográfico de Euskadi comprende, además de las descritas en el párrafo anterior, las obras bibliográficas en cualquier tipo de soporte que se hallan en Euskadi y que tienen valores históricos o culturales relevantes".

### **Segunda**

Los bienes objeto de depósito legal podrán entregarse al mismo tiempo que los integrantes del Depósito Bibliográfico Vasco, sin perjuicio de que se rijan por el régimen jurídico establecido en la normativa estatal y, en su caso, la autonómica de aplicación.

### **Tercera**

Mediante decreto, el Consejo de Gobierno podrá actualizar la cuantía de las sanciones previstas en la presente ley.

Vitoria-Gasteiz, a 20 de septiembre de 2007

**La secretaria de la comisión, Itziar Basterrika Unanue. Visto bueno, la presidenta de la comisión, Onintza Lasa Arteaga**

\*\*\*

Euskadiko bibliografia-ondarea, aurreko lerro-kadan aipatutakoez gain, Euskadin dauden eta historia- edo kultura-balio nabarmenak dituzten bibliografia-lanek osatzen dute, horien euskarria dena dela".

### **Bigarrena**

Lege-gordailua behar duten ondasunak Euskal Bibliografia Gordailua osatzen dutenekin batera entregatu ahal izango dira, Estatuko araudian eta, hala badagokio, autonomia-erkidegokoan ezarritako araubide juridikoa aplikatu behar bazaie ere.

### **Hirugarrena**

Dekretu bidez, Jaurlaritzaren Kontseiluak lege honetan aurreikusi diren zehapenen zenbatekoak eguneratu ahal izango ditu.

Vitoria-Gasteiz, 2007ko irailaren 20a

**Batzordeko idazkaria, Itziar Basterrika Unanue. Ontzat emana, batzordeko lehendakaria, Onintza Lasa Arteaga**

\*\*\*

## KONTROL ETA SUSTAPEN POLITIKOA FUNCIÓN DE CONTROL E IMPULSO POLÍTICOS

### LEGEZ BESTEKO PROPOSAMENAK PROPOSICIONES NO DE LEY

*Relativa al grave problema de falta de personal para realizar sustituciones de educadoras y educadores en el consorcio Haurreskolak* (Acuerdo de la comisión)  
(08/11.02.01.0394)

La Mesa, en su reunión del día 2 de octubre de 2007, ordena la publicación en el Boletín Oficial del Parlamento Vasco del acuerdo adoptado por la Comisión de Educación y Cultura en relación con la proposición no de ley formulada por el grupo parlamentario Popular Vasco.

**La presidenta del Parlamento Vasco  
Izaskun Bilbao Barandica**

**ITZIAR BASTERRIKA UNANUE, SECRETARIA DE LA  
COMISIÓN DE EDUCACIÓN Y CULTURA,**

#### CERTIFICO

Que la Comisión de Educación y Cultura, en la sesión celebrada el día 20 de septiembre de 2007, tras el debate de la proposición no de ley relativa al grave problema de falta de personal para realizar sustituciones de educadoras y educadores en el consorcio Haurreskolak, ha aprobado la citada proposición con arreglo al siguiente texto:

"El Parlamento Vasco insta al Departamento de Educación, Universidades e Investigación a elaborar y presentar, tras la negociación con los agentes sociales y siempre antes del 15 de diciembre, el plan de medidas para solucionar los problemas de personal que sufre el Consorcio Haurreskolak".

Y para que así conste, y en orden a su ejecución, expido la presente certificación con el visto bueno de la presidenta de la comisión, en Vitoria-Gasteiz, a 20 de septiembre de 2007.

**La secretaria de la comisión, Itziar Basterrika Unanue. Visto bueno, la presidenta de la comisión, Onintza Lasa Arteaga**

\*\*\*

*Relativa a las barreras arquitectónicas en el CEIP Lezamako Eskola* (Acuerdo de la comisión)  
(08/11.02.01.0411)

La Mesa, en su reunión del día 2 de octubre de 2007, ordena la publicación en el Boletín Oficial del

*Haurreskolak partzuegoan hezitzaileen ordezkapenak egiteko dagoen pertsonal falta larriari buruz* (Batzordearen erabakia)  
(08/11.02.01.0394)

Mahaiak, 2007ko urriaren 2ko bileran, agindu du Eusko Legebiltzarraren Aldizkari Ofizialean argitaratu dadila Hezkuntza eta Kultura Batzordearen erabakia, Euskal Legebiltzar Talde Popularrak egindako legez besteko proposamena dela-eta harturikoa.

**Eusko Legebiltzarreko lehendakaria  
Izaskun Bilbao Barandica**

**NIK, ITZIAR BASTERRIKA UNANUEK, HEZKUNTZA  
ETA KULTURA BATZORDEKO IDAZKARI NAIZEN  
HONEK,**

#### ZIURTATZEN DUT

Hezkuntza eta Kultura Batzordeak, 2007ko irailaren 20an egindako bilkuran, aztergai izan duela legez besteko proposamen bat, Haurreskolak partzuegoan hezitzaileen ordezkapenak egiteko dagoen pertsonal falta larriari buruz, eta, eztabaida egin ondoren, honako testuaren arabera onetsi duela:

"Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailari eskatzen dio har ditzala Haurreskolak partzuegoak dituen pertsonal arazoak konpontzeko neurriak, behin gizarte-eragileekin eztabaidatu ondoren, eta beti ere abenduaren 15a baino lehen".

Eta horrela jasota geratzeko, eta erabakitakoa bete dadin, ziurtagiri hau egiten dut batzordeko lehendakariaren oniritziarekin, Gasteizen, 2007ko irailaren 20an.

**Batzordeko idazkaria, Itziar Basterrika Unanue. Ontzat emana, batzordeko lehendakaria, Onintza Lasa Arteaga**

\*\*\*

*Haur eta lehen hezkuntzako Lezamako Eskolan dauden oztupo arkitektonikoei buruz* (Batzordearen erabakia)  
(08/11.02.01.0411)

Mahaiak, 2007ko urriaren 2ko bileran, agindu du Eusko Legebiltzarraren Aldizkari Ofizialean argitaratu



Parlamento Vasco del acuerdo adoptado por la Comisión de Educación y Cultura en relación con la proposición no de ley formulada por el grupo parlamentario Socialistas Vascos.

**La presidenta del Parlamento Vasco  
Izaskun Bilbao Barandica**

**ITZIAR BASTERRIKA UNANUE, SECRETARIA DE LA  
COMISIÓN DE EDUCACIÓN Y CULTURA,**

#### CERTIFICO

Que la Comisión de Educación y Cultura, en la sesión celebrada el día 20 de septiembre de 2007, tras el debate de la proposición no de ley relativa a las barreras arquitectónicas en el CEIP Lezamako Eskola, ha aprobado la citada proposición con arreglo al siguiente texto:

"El Parlamento Vasco insta al consejero de Educación, Universidades e Investigación a ampliar las instalaciones dedicadas a comedor en ese centro, para atender la demanda y que los comensales dispongan de espacio suficiente".

Y para que así conste, y en orden a su ejecución, expido la presente certificación con el visto bueno de la presidenta de la comisión, en Vitoria-Gasteiz, a 20 de septiembre de 2007.

**La secretaria de la comisión, Itziar Basterri-  
ka Unanue. Visto bueno, la presidenta de la  
comisión, Onintza Lasa Arteaga**

\*\*\*

***Relativa al II Plan de Inmigración (2007-2009)***  
(Retirada)  
(08/11.02.01.0446)

La Mesa, en su reunión del día 2 de octubre de 2007, acuerda admitir el escrito del grupo parlamentario Socialistas Vascos en el sentido de retirar la proposición no de ley, y ordena su publicación en el Boletín Oficial del Parlamento Vasco.

**La presidenta del Parlamento Vasco  
Izaskun Bilbao Barandica**

\*\*\*

***Referente a transparencia en todos los aspectos  
que rodean al sector de los mataderos*** (Enmienda)  
(08/11.02.01.0439)

La Mesa, en su reunión del día 2 de octubre de 2007, acuerda admitir a trámite la siguiente enmienda presentada a la proposición no de ley formulada por el grupo parlamentario Popular Vasco, y ordena su remisión a la Comisión de Agricultura y Pesca y su

dadila Hezkuntza eta Kultura Batzordearen erabakia, Euskal Sozialistak legebiltzar-taldeak egindako legez besteko proposamena dela-eta harturikoa.

**Eusko Legebiltzarreko lehendakaria  
Izaskun Bilbao Barandica**

**NIK, ITZIAR BASTERRIKA UNANUEK, HEZKUNTZA  
ETA KULTURA BATZORDEKO IDAZKARI NAIZEN  
HONEK,**

#### ZIURTATZEN DUT

Hezkuntza eta Kultura Batzordeak, 2007ko irailaren 20an egindako bilkuran, aztergai izan duela legez besteko proposamen bat, haur eta lehen hezkuntzako Lezamako Eskolan dauden oztopo arkitektonikoei buruz, eta, eztabaida egin ondoren, honako tesuaren arabera onetsi duela:

"Eusko Legebiltzarrak Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuari eskatzen dio handitu ditzala ikastetxe horretako jantokiko instalazioak, eskariari erantzuteko eta ikasleek nahikoa leku izateko".

Eta horrela jasota geratzeko, eta erabakitakoa bete dadin, ziurtagiri hau egiten dut batzordeko lehendakariaren oniritziarekin, Gasteizen, 2007ko irailaren 20an.

**Batzordeko idazkaria, Itziar Basterri-  
ka Unanue. Ontzat emana, batzordeko lehendakaria,  
Onintza Lasa Arteaga**

\*\*\*

***Immigrazioari buruzko 2007-2009 aldirako Pla-  
nari buruz*** (Erretiratzea)  
(08/11.02.01.0446)

Mahaiak, 2007ko urriaren 2ko bileran, erabaki du onartzea Euskal Sozialistak legebiltzar-taldeak legez besteko proposamena erretiratzeko aurkeztu duen idazkia, eta agindu du Eusko Legebiltzarraren Aldizkari Ofizialean argitara dadila erabakia.

**Eusko Legebiltzarreko lehendakaria  
Izaskun Bilbao Barandica**

\*\*\*

***Hiltegien sektorearen inguruko alderdi guztietako  
gardentasunari buruz*** (Zuzenketa)  
(08/11.02.01.0439)

Mahaiak, 2007ko urriaren 2ko bileran, erabaki du tramitzeko onartzea Euskal Legebiltzar Talde Popularraren legez besteko proposamenari aurkeztutako ondoko zuzenketa, eta agindu du Nekazaritza eta Arrantza Batzordeari bidal dakiola eta Eusko Legebil-

publicación en el Boletín Oficial del Parlamento Vasco.

**La presidenta del Parlamento Vasco  
Izaskun Bilbao Barandica**

**GRUPO PARLAMENTARIO SOCIALISTAS VASCOS**

**ENMIENDA DE TOTALIDAD**

"El Parlamento Vasco insta al Gobierno Vasco a elaborar y presentar ante esta Cámara, con carácter anual, un informe sobre el funcionamiento de los mataderos de la Comunidad Autónoma del País Vasco, en el que, partiendo de la diferenciación del ganado en función de si está o no amparado por el distintivo Euskal Okela, se relacionen:

- Animales que se sacrifican en cada matadero de la CAPV, mensualmente.
- Procedencia de dichos animales.
- Dónde nacieron.
- Dónde fueron cebados.
- Ruta que siguieron para llegar al matadero.
- Método de sacrificio.
- Cómo se comercializaron.
- Volumen y origen del ganado que se sacrifica en los mataderos de fuera de la Comunidad Autónoma del País Vasco.
- Dónde se eliminan los MER y los MAR que se producen en cada matadero.
- Si están autorizados dichos lugares.
- Quién inspecciona dichos lugares y con qué periodicidad.
- Localización de dichos lugares (pertenecen a la CAPV o no) y ruta que siguen los materiales".

\*\*\*

**Relativa al Plan Estratégico de Consumo 2007-2010** (Admisión a trámite)  
(08/11.02.01.0450)

La Mesa, en su reunión del día 2 de octubre de 2007, acuerda admitir a trámite para su debate en comisión la PROPOSICIÓN NO DE LEY formulada por el grupo parlamentario Socialistas Vascos, y ordena su remisión al Gobierno Vasco y a la Comisión de Industria, Comercio y Turismo, y su publicación en el Boletín Oficial del Parlamento Vasco.

tzarraren Aldizkari Ofizialean argitara dadila.

**Eusko Legebiltzarreko lehendakaria  
Izaskun Bilbao Barandica**

**EUSKAL SOZIALISTAK LEGEBILTZAR TALDEA**

**OSOKO ZUZENKETA**

"Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio urtero Euskal Autonomia Erkidegoko hiltegien funtzionamenduari buruzko txosten bat egin eta Gantza honetan aurkez dezala. Txostenean kontuan izango da abereak Euskal Okela bereizgarriaren babespean dauden ala ez, eta ondokoak zerrendatuko dira:

- Zenbat abere hiltzen den hilero EAeko hiltegi bakoitzean.
- Nondik datozen abere horiek.
- Non jaio ziren.
- Non hazi zituzten.
- Zein ibilbide jarraituz iritsi diren delako hiltegi horretara.
- Hiltzeko modua.
- Nola merkaturatu ziren.
- Euskal Autonomia Erkidegoaz kanpoko hiltegi-tan zenbat abere hiltzen diren eta nondik datozen.
- Hiltegi bakoitzean sortzen diren AME eta AHM non deuseztatzen diren.
- Leku horiek baimenik duten.
- Nork ikuskatzen dituen leku horiek, eta zenbatero.
- Leku horiek non dauden (EAEn ala ez) eta materialen ibilbidea zein den".

\*\*\*

**2007-2010 aldirako Kontsumoko Plan Estrategikoari buruz** (Tramitatze onartzea)  
(08/11.02.01.0450)

Mahaiak, 2007ko urriaren 2ko bileran, erabaki du tramitatze onartzea, batzordean eztabaidatzeko, Euskal Sozialistak legebiltzar-taldeak egindako LEGEZ BESTEKO PROPOSAMENA, eta agindu du Eusko Jaurlaritzari eta Industria, Merkataritza eta Turismo Batzordeari bidal dakiela eta Eusko Legebiltzarraren Aldizkari Ofizialean argitara dadila.

Los grupos parlamentarios, conforme a lo dispuesto en el artículo 160.2 del vigente Reglamento de la Cámara, podrán presentar dentro de los siete días hábiles siguientes al de esta publicación las enmiendas que consideren pertinentes, mediante escrito motivado y dirigido a la Mesa.

**La presidenta del Parlamento Vasco  
Izaskun Bilbao Barandica**

A la Mesa del Parlamento Vasco

Idoia Mendia Cueva, parlamentaria del grupo Socialistas Vascos, tiene el honor de presentar, al amparo del vigente Reglamento de la Cámara, la siguiente proposición no de ley para su debate en la Comisión de Industria, relativa al Plan Estratégico de Consumo 2007-2010.

Justificación:

El pasado 3 de mayo de 2006 se publicó en el BOPV el anuncio de concurso público para la elaboración del Plan Estratégico de Consumo 2007-2010. En dicho anuncio se establecía claramente que el plazo de ejecución era de seis meses, y que en cualquier caso la fecha límite de entrega no debía ir más allá del 31 de diciembre del año 2006.

Por lo tanto, dicho plan estratégico de consumo debe de estar elaborado y valorado por la Dirección de Consumo, ya que ha transcurrido tiempo suficiente para ello.

El interés sobre las políticas de consumo es cada vez mayor en nuestra sociedad, y por ello creemos que el debate de los grupos parlamentarios sobre este tema puede enriquecer en gran medida el plan del Gobierno.

Por ello, el grupo parlamentario Socialistas Vascos tiene el honor de presentar la siguiente proposición no de ley para su debate en comisión:

"El Parlamento Vasco insta al Departamento de Industria, Comercio y Turismo del Gobierno Vasco a que, en un plazo máximo de un mes, presente el Plan Estratégico de Consumo 2007-2010, para su debate monográfico en comisión y para que los grupos parlamentarios puedan hacer las propuestas de resolución que estimen necesarias para mejorar dicho documento".

En Vitoria-Gasteiz, a 26 de septiembre de 2007

**Idoia Mendia Cueva, parlamentaria del grupo Socialistas Vascos. José Antonio Pastor Garrido, portavoz**

\*\*\*

Legebiltzar-taldeek, Legebiltzarrean indarrean dagoen Araudiko 160.2 artikuluan adierazitakoari jarraituz, zuzenketak aurkeztu ahal izango dituzte, argitalpen hau egin eta hurrengo zazpi egun baliadunen barruan, Mahaiari idazki arrazoitua bidaliz.

**Eusko Legebiltzarreko lehendakaria  
Izaskun Bilbao Barandica**

Eusko Legebiltzarreko Mahaiari

Idoia Mendia Cueva Euskal Sozialistak taldeko legebiltzarkideak, indarrean den Araudia baliatuz, honako legez besteko proposamen hau aurkezten du, 2007-2010 aldirako Kontsumoko Plan Estrategikoari buruz, Industria Batzordean eztabaidatzeko.

Arrazoiak:

Iragan 2006ko maiatzaren 3an EHAAn eman zen argitara 2007-2010 aldirako Kontsumoko Plan Estrategikoa egiteko lehiaketa publikoaren iragarkia. Bertan argi agertzen zen sei hilabeteko egitaritzeko epea zuela eta 2006ko urtearen abenduaren 31 pasa baino lehen eman behar zela.

Horregatik, kontsumoko plan estrategikoa Kontsumo Zuzendaritzak egin eta ebaluatua behar du jadanik, denbora ere izan baitu horretarako.

Kontsumoko politiken gaineko gero eta interes handiagoa dabil gure gizartean; hori dela eta, uste dugu legebiltzar-taldeek gai horren gainean eztabaidatzeak arrunt aberastu dezakeela Jaurlaritzaren plana.

Hori guztia dela eta, Euskal Sozialistak legebiltzar-taldeak honako legez besteko proposamen hau aurkezten du, batzordean eztabaidatua izateko:

"Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzaren Industria, Merkataritza eta Turismo Sailari eskatzen dio hiru hilabeteren epe barruan 2007-2010 aldirako Kontsumo Plan Estrategikoa berria aurkez dezala, batzordeak eztabaida monografikoa egin eta legebiltzar-taldeek dokumentua hobetzeko egin beharreko ebazpen proposamenak egiteko aukera ukan dezaten".

Gasteizen, 2007ko irailaren 26an

**Idoia Mendia Cueva, Euskal Sozialistak taldeko legebiltzarkidea. José Antonio Pastor Garrido, bozeramailea**

\*\*\*



**Relativa a la construcción de un hospital en la margen derecha del Nervión, en Vizcaya** (Admisión a trámite)  
(08/11.02.01.0451)

La Mesa, en su reunión del día 2 de octubre de 2007, acuerda admitir a trámite para su debate en pleno la PROPOSICIÓN NO DE LEY formulada por el grupo parlamentario Popular Vasco, y ordena su remisión al Gobierno Vasco y su publicación en el Boletín Oficial del Parlamento Vasco.

Los grupos parlamentarios, conforme a lo dispuesto en el artículo 160.2 del vigente Reglamento de la Cámara, podrán presentar dentro de los siete días hábiles siguientes al de esta publicación las enmiendas que consideren pertinentes, mediante escrito motivado y dirigido a la Mesa.

**La presidenta del Parlamento Vasco  
Izaskun Bilbao Barandica**

A la Mesa del Parlamento Vasco

Juana Iturmendi Maguregui, parlamentaria del grupo Popular Vasco, al amparo del vigente Reglamento de la Cámara tiene el honor de presentar la siguiente proposición no de ley, para su debate en pleno, relativa a la construcción de un hospital en la margen derecha del Nervión, en Vizcaya.

Justificación:

El plan de modernización y adecuación de infraestructuras y equipamientos del sistema sanitario vasco, aprobado por el Consejo de Gobierno, tiene entre sus objetivos identificar, planificar y cuantificar las inversiones que el Departamento de Sanidad, a través de Osakidetza, va a acometer para cumplir los objetivos en materia de salud y para dar cobertura, a su vez, a la demanda asistencial futura.

Entre los análisis realizados, sitúa la esperanza de vida de los varones en 77,3 años y en 84,4 la de las mujeres, y la esperanza de vida libre de incapacidad en 67,9 años para los varones y en 72,6 años para las mujeres.

Estos datos nos indican que van a ser 9,4 años de incapacidad para los varones y 11,8 para las mujeres, lo cual tendrá una importante repercusión en los servicios sanitarios.

Asimismo, se estima que Euskadi va a pasar, de contar en 2001 con una proporción de personas mayores de 65 años del 16 %, al 21 % en 2015.

Esto es, vamos a tener un mayor consumo de recursos asistenciales, ya que el colectivo más envejecido es el que realiza una mayor utilización de los mismos. Ya desde el año 2002 las altas hospitalarias de las personas mayores de 65 años, registradas en la red pública, han sido superiores a las del resto de población.

**Bizkaian, Nerbioi ibaiaren eskuinaldean ospitale bat eraikitzeari buruz** (Tramitatze onartzea)  
(08/11.02.01.0451)

Mahaiak, 2007ko urriaren 2ko bileran, erabaki du tramitatze onartzea, osoko bilkuran eztabaidatzeko, Euskal Legebiltzar Talde Popularrak egindako LEGEZ BESTEKO PROPOSAMENA, eta agindu du Eusko Jaurlaritzari bidal dakiola eta Eusko Legebiltzarren Aldizkari Ofizialean argitaratu dadila.

Legebiltzar-taldeek, Legebiltzarrean indarrean dagoen Araudiko 160.2 artikuluan adierazitakoari jarraituz, zuzenketak aurkeztu ahal izango dituzte, argitalpen hau egin eta hurrengo zazpi egun baliodunen barruan, Mahaiari idazki arrazoitua bidaliz.

**Eusko Legebiltzarreko lehendakaria  
Izaskun Bilbao Barandica**

Eusko Legebiltzarreko Mahaiari

Juana Iturmendi Maguregui Euskal Talde Popularrako legebiltzarkideak, indarrean dagoen Araudiaz baliatuz, ondoko legez besteko proposamena aurkeztu du, Bizkaian, Nerbioi ibaiaren eskuinaldean ospitale bat eraikitzeari buruz, osoko bilkuran eztabaidatzeko.

Arrazoiak:

Euskal osasun-sistemako azpiegiturak eta ekipamenduak modernizatu eta egokitzeko planak, Jaurlaritzaren Kontseiluak onartutakoak, helburu hau du, besteak beste: Osasun Sailak Osakidetza bitartez egingo dituen inbertsioak identifikatu, planifikatu eta kuantifikatzea. Inbertsio horien xedeak osasunaren eremuko helburuak betetzea eta etorkizuneko arreta-erreserba erantzutea dira.

Egindako azterketen arabera, bizi-itzaropena 77,3 urte dira gizonezkoengan, eta 84,4 emakumezkoengan. Ahalmen-urritasunik gabeko bizi-itzaropena 67,9 urte dira gizonezkoen kasuan eta 72,6 emakumezkoengan.

Datu horien arabera, gizonezkoak 9,4 urtez bizi dira ahalmen-urritasunen batekin; eta emakumezkoak, 11,8. Horrek guztiak eragin handia izango du osasun-erreserbituetan.

Era berean, Euskadin, 2001ean, biztanleen % 16 ziren 65 urtetik gorakoak; 2015ean, % 21 izango omen dira.

Hau da, laguntza-baliabide gehiago kontsumituko dira, zaharrenak izaten baitira horiek gehien erabiltzen dituztenak. 2002tik hona, ospitaleko senda-agiriak, sare publikoan emandakoak, ugariago izan dira 65 urtetik gorakoen artean gainontzeko herritarren artean baino.

Entre las líneas de actuación que se ha marcado el Departamento de Sanidad en el plan, considerándolas claves, se hace mención especial a la modernización y adecuación de infraestructuras y equipamientos, así como al plan de mejora y adecuación del capital humano. En otras palabras, las infraestructuras, los equipamientos y el personal serán fundamentales para poder atender la demanda futura de los servicios sanitarios con estándares de calidad.

Desde el punto de vista de obras e infraestructuras contempla, entre otras prioridades, la ampliación del número de camas hospitalarias. Las previsiones de ampliación previstas son entre 224 y 300 camas, dependiendo de variables; esto es, pasaríamos de las 5.508 camas actuales a 5.808 en el mejor de los casos.

Nos encontramos que, además del centro-hospital de alta resolución de Gernika, sin camas, está previsto un centro de alta resolución en la margen derecha, pero también sin camas. Esto es, no hay ninguna cama prevista para la margen derecha, que tiene una población de más de 200.000 habitantes.

Por estas razones, el grupo parlamentario Popular Vasco presenta ante esta Cámara la necesidad de incrementar el número de camas previsto en el plan de modernización y adecuación de infraestructuras y equipamientos del sistema sanitario vasco, y por tanto de construir un nuevo hospital en la margen derecha del Nervión, en Vizcaya.

Por ello solicitamos el respaldo a la siguiente proposición no de ley:

"El Parlamento Vasco insta al Gobierno Vasco a la construcción de un nuevo hospital en la margen derecha del Nervión, en Vizcaya, con las camas necesarias, que permitan atender desde el mismo la demanda de asistencia e ingreso hospitalario de la población de la comarca de Uribe".

Vitoria, a 27 de septiembre de 2007

**Juana Iturmendi Maguregui, parlamentaria del grupo Popular Vasco. Leopoldo Barreda de los Ríos, portavoz**

\*\*\*

Osasun Sailak zenbait jarduera-ildo zehaztu ditu planean. Haietako zenbait nagusitzat jo dira: azpiegiturak eta ekipamenduak modernizatu eta egokitzeko beharra, eta giza baliabideak ere hobetu eta egokitzeko plana. Bestela esanda, azpiegiturak, ekipamenduak eta langileak funtsezkoak izango dira etorkizunean osasun-zerbitzuetako eskaerari kalitateko estandarren arabera erantzun ahal izateko.

Lanen eta azpiegituren ikuspuntutik, eta beste lehenetasunen artean, ohe gehiago jarriko dira ospitaleetan. 224 eta 300 ohe bitarteko gehikuntza aurreikusi da, betiere aldagaien gorabeheren menpean; hau da, kasurik onenean, 5.508 ohe izatetik 5.808 ohe izatera pasatuko gara.

Gernikako bereizmen handiko ospitale-zentroa daukagu, baina bertan ez dago oherik; horrez gain, eskuinaldean bereizmen handiko beste zentro bat sortzea aurreikusi da, baina hor ere ez da oherik egongo. Hau da, eskuinaldean 200.000 biztanletik gora daude, baina ez da oherik aurreikusi.

Arrazoi horiengatik, Euskal Legebiltzar Talde Popularrak Ganbera honetan adierazten du euskal osasun-sistemako azpiegiturak eta ekipamenduak modernizatu eta egokitzeko planeko ohe-kopurua handitu behar dela; eta, beraz, ospitale berria eraiki behar dela Nerbioiaren eskuinaldean, Bizkaian.

Horregatik, legez besteko proposamen hau onesteko eskatzen dugu:

